2019-2023 EPEKO PLAN ESTRATEGIKOAREN (ESEP: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) BALANTZEA ETA EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Gernika-Lumon, 2022/2023an zehar egokitutako txostena.
Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria

AURKIBIDEA

HITZAURREA ……. 3

I.- 2019tik 2023rako PLAN ESTRATEGIKOAREN BALANTZEA ETA HAUSNARKETA OROKORRA
I.1.- ADIERAZLEAK (VI.. Plan estrategikoaren garapena) ……6
I.1.1. Pozteko ondorioak …… 11
I.1.2.- Kezkatzeko ondorioak……13

II.- BALANTZEA ETA EGOERAREN HAUSNARKETA (HELBURU ESTRATEGIKOKA ETA ESPARRUKA)

II.1- Lehenengo helburu estrategikoa: EUSKARA ONDORENGOETARATZEA (edierazleak)……15
II.1.1.- Familia esparrua – Balorazioa …….....27
II.1.2.- Euskalduntze-alfabetatze esparrua- Balorazioa ……32
II.1.3.- Irakaskuntza esparrua – Balorazioa ……...35

II.2.- Bigarren helburu estrategikoa: EUSKARAREN ERABILERA (ADIERAZLEAK) ……..41
II.2.1.- Administrazioa – Balorazioaa ……47
II.2.2.- Lan mundua – Balorazioa ……...60
II.2.3.- Aisia – Balorazioa …….....64
II.2.4.- Kirola – Balorazioa …….....68

II.3.- Hirugarren helburu estrategikoa: EUSKARAREN ELIKADURA …….. 72
II.3.1.- Kulturgintza – Balorazioa ……...74
II.3.2.- Hedabideak – Balorazioa ……79
II.3.3.- Teknologia berriak-balorazioa …….... 83

II.4.- Zehar lerrokoak: SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA……..88

HITZAURREA (aurrekariak)

1.- Legezko aurrekarien arabera, 2003tik aurrera euskara planak gauzatzeko agindua bete behar izan zen udal erakundeetan eta horri egoki erantzuteko konpromisoa hartu zuen Gernika-Lumoko Udalak. Horien artean, aipagarrienak hurrengo hauek dira:

- Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, euskararen erabilera arautzen duena.
- Uztailaren 6ko 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoaren erabilera garatzen duena.
- 250/86 Dekretua eta 224/89 Dekretua: herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzekoa (I. plangintzaldia).
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ean onartua, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko proiektua arautzen duena.
- 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 179/2019 Dekretua, toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa (2/2016 Legea garatzen du euskararen tratamenduari dagokionean).

2.- Eusko Legebiltzarrak, 1999ko abenduaren 10ean egindako osoko bilkuran bi erabakiok hartu zituen:
"Eusko Legebiltzarrak berretsi egiten du Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak Euskararen Aholku Batzordearekin elkarlanean, (aholku batzorde honetan Kontseiluak ere onartu zuen) *burutu eta Eusko Jaurlaritzak 1998ko uztailaren 28an onartutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia.* (1. ebazpena)
Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetako eta hiri handietako udalei eskatzen die gara dezatela euren hizkuntza normalizatzeko plana, nahiz eta hori bideratzeko plan orokor bat egon. (8. ebazpena). "

3.- Hori horrela, Gernika-Lumoko Udalak eskaera ofiziala egin zion Hizkuntza Politikarako Sailordetzari 2002ko maiatzaren 3an, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapenerako aholkularitza eta baliabide (aplikazio informatikoak) eske. Horren ondorioz, eman beharreko hamar urratsak eman genituen lehenengo Plan Estrategikoa eratzeko (datu-bilketa, diagnostikoa, bideragarritasun txostena, Euskara Batzordea dinamizatu,…).

4.- Horren ildotik, Gernika-Lumoko Udalbatza Osoak, beti aho batez, hurrengo Plan Estrategikoak onartu ditu urteetan zehar:

- 2003-2005 epeko Plan Estrategikoa (EBPN: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) 2006, 2007 eta 2008 urteetan luzatu zena, hurrengo plangintzaldirako Jaurlaritzaren hausnarketa eta proposamenei zain.

- **2009-2013 eperako Plan Estrategikoa** (EBPN). Hurrengo konpromisoei eutsi eta beste hau erabakiz: *"...2).- Plan Estrategikoa 2003an onartu zenean eta 2007ko abenduaren 26ko Osoko Bilkuran azken luzapena erabakitzerakoan hartutako konpromisoak berrestea, hau da, Gernika-Lumoko Udalak bere aurrekontu osoarekiko euskararen sustapenerako erabiliko duen portzentaia ez da azken urteetan bataz bestekoa izan den %2,2tik jaitsiko."*

- **2014-2017 eperako Plan Estrategikoa** (ESEP: Euskara Suztatzeko Ekintza Plana) 2018an luzatu zena. Plangintzaldi honetarako izendapen aldaketa eta metodologia aldetik ere egokipenak egin zituen Jaurlaritzak.

- **2019-2022 eperako Plan Estrategikoa** (ESEP) 2023 urtean ere luzatu dena. Txosten/Agiri honetan, bada, Plan honen garapena aztertu, esparru bakoitzeko egoeraren adierazleak kontuan hartuta hausnarketa egin eta detektatutako indarguneak eta ahuleziak finkatzea dugu helburu, 2024-2027 eperako Plan Estrategikoa (ESEP) moldatzeko prozesuan lagungarri.

I.- 2019-2023KO EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN (ESEP) BALANTZEA ETA HAUSNARKETA OROKORRA

Helburu nagusia

"Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea…. hizkuntza politika hogeita hamar urte betetzera doan garai honetan, gero eta argiago nabaritzen da egungo eta etorkizuneko erronka nagusia, …, hizkuntzaren erabilera dela"

I.1.- ADIERAZLE NAGUSIAK (VI. Plan estrategikoaren garapena)

UDALAREN AURREKONTUA ETA EUSKARAREN SUSTAPENERAKO AURREKONTUA BILAKAERAREN ALDERAKETA



Koadro honetan, udalak bere aurrekontutik euskararen sustapenerako urtez urte erabili izan duen portzentajea agertzen da. Osoko Bilkuran Plan Estrategikoa onartu zenean finkaturiko irizpidea gutxigatik ez da bete azken bi urteetan, erabaki zelako udal aurrekontu osoarekiko %2,2tik gorako portzentajea erabiltzea euskararen sustapenerako.

ERABILITAKO AURREKONTUAK HELBURU BAKOITZEKO (2003 / 2022)

Helburu estrategikoak	2003 urtea		2010 urtea		2016 urtea		2019		2021		2022	
	GASTUA	%	GASTUA	%	GASTUA	%	GASTUA	%	GASTUA	%		
1.- Euskara ondorengoetaratzea	64.598	25,14	144.709	22,15	125.089	20,54	130.850	24,03	89.982	20,03	105.007	22,69
2.- Euskararen erabilera	132.863	51,70	326.000	49,91	335.987	55,17	295.913	54,34	259.000	57,68	263.200	56,87
3.- Euskararen elikadura	59.505	23,16	182.500	27,94	85.749	14,08	6.900	1,30	4.500	1,01	0	0
4.- Zehar lerrokoak (sentsibiliz + motib)	---	---	---	---	62.159	10,21	110.760	20,33	95.548	21,28	94.625	20,44
Udal Euskaltegiari urteko aportazioa												
GUZTIRA HELBURU NAGUSIRAKO	**256.966**	100	**651.096**	100	608.984	100	544.423	100	449.030	100	462.832	100

- Kontuan hartu behar taula honetako aurrekontuetan Udal Euskaltegia Fundazioari urtero egiten zaion ekarpena falta dela 1. Helburu estrategikoan (2022an 227.255€).

- Berdez azpimarratuta dago aurrekontu igoera nabarmena izan duen 2. helburu estrategikoarena (euskararen erabilera). Ez da ahaztu behar I. kapituluko gastuak daudela sartuta honetan (Euskara Zerbitzuko giza-baliabideen gastuak: 200.000 € inguru) eta baliabide horiek direla helburu estrategiko guztietakoa kudeatzekoak.

- Gorriz dago 2014-2017 epealdian indarrean egon den ESEP-en arabera sortutako ZEHAR-LERROKO HELBURUA/transbertsala (sentsibilizaioa eta motibazioa: esparru guztiekin lotuta dauden hainbat ekintza, eta neurri handi batean "euskararen elikadura"-ri dagokion helburuaren lekua hartu duena).

- 2010etik 2017ra udal aurrekontuaren murrizketagatik euskararenak ere behera egin zuen, krisiaren ondorioa batik bat; hortik eta gaur arte, udal aurrekontua sendotzen joan den arren, euskararenak ez du berreskuratu 2009-2016 tarteko maila edo portzentajea,

ERABILITAKO AURREKONTUAK ESPARRUKA (2003 / 2022)

FUNTSEZKO ESPARRUAK		2003 urtea		2010		2016		2019		2021		2022	
		KOP.	%	KOP	%	KOP	%	KOP	%	KOP	%	KOP	%
1. helburu estrat. Ondorengoetaratzea	**Familia jarraipena**	16.828	6,55	10.114	1,55	8.947	1,47	15.200	2,79	6.482	1,45	16.043	3,47
	Euskald-Alfabet (4)	6.010	2,34	61.132	9,39	21.654	3,55	94.650	17,39	67.500	15,03	16.000	3,46
	Irakaskuntza	41.760	16,25	77.713	11,94	94.488	15,51	21.000	3,86	16.000	3,56	72.964	15,76
2. helburu estrat. Euskararen erabilera	**Administrazioa**	95.000	36,97	220.000	33,79	240.000	39,41	207.000	38,02	207.000	46,09	221.000	47,75
	Enpresa mundua	15.025	5,84	68.514	10,52	62.700	10,29	62.100	11,40	49.000	10,91	41.000	8,86
	Aisia (1)	22.838	8,89	77.421 **(1)**	11,89	33.287	5,46	26.813	4,93	3.000	0,67	1.200	0,25
	Erlijioa	0	0										
	Kirola	0	0	1.545	0,24								
3. helburu estrat. Euskararen elikadura	**Corpus plangintza**	15.626	6,08	10.034 **(2)**	1,54	2.400	0,40	2.400	0,45	0	0	0	0
	Kulturgintza (2)	7.813	3,04			0	0	0	0	0	0	0	0
	Liburugintza	11.419	4,44			0	0	0	0	0	0	0	0
	Publizitatea	901	0,35	108.500 **(3)**	16,66	82.330	13,52	2.500	0,46	2.500	0,56	0	0
	Komunikabideak (3)	12.621	4,92										
	Teknologia berriak	11.125	4,33	16.123	2,48	1.019	0,18	2.000	0,36	2.000	0,45	0	0
4. Sentsibilizazioa eta motibazioa + barruko proiekzioa	**Zehar lerrokoak (3 helburuekin lotuta)**	---	---	---	---	62.159	10,21	110.760	20,34	95.548	21,28	94.625	20,45
EBPN-ren helburu nagusirako		**256.966**	**100**	**651.096**	**100**	**608.984**	**100**	**544.423**	**100**	**449.030**	**100**	**462.832**	**100**

- **(1) (2) (3)** Esparruen kopurua aldatuz joan da plangintzaldietan. Orain Kulturgintzan eta Komunikadeetakoan daude txertatuta beste batzuk.
- **(4)** Kontuan hartzekoa da "Euskalduntze-alfabetatze" esparruko kopuruari gehitu behar zaiola Udal Euskaltegiari urtero egiten zaion aportazioa:

2005	*2008*	*2010*	*2012*	*2014*	*2015*	*2019*	*2020*	*2021*	*2022*
166.943	*203.829*	*248.516*	*231.862*	*186.995*	*186.955*	*185.255*	*218.255*	*218.256*	*227.255*

EKINTZA KOPURUAK HELBURU BAKOITZEKO

PLAN ESTRATEGIKOAK 2003-2008 eta 2009-2012 HELBURU NAGUSIAK	GARATUTAKO EKINTZA KOPURUA URTETIK URTERA (PROPOSATUTAKOAK ETA BURUTUTAKOAK)													
	2003		2010		2015		2019		2020		2021		2022	
	PROP	BETE	PROP	BETE	PROP	BETE	PROP	BETE	PROP	BETE	PROP	BETE	PROP	BETE
1.- Euskara ondorengoetaratzea	21	20	30	27	23	21	22	17	22	13	19	13	20	17
2.- Euskararen erabilera	43	42	28	26	32	30	29	26	27	21	24	25	26	24
3.- Euskararen elikadura	19	15	27	25	25	22	21	21	19	19	19	19	19	18
4.- Zehar lerroak	--	--	--	--	29	21	26	23	26	22	25	21	26	24
GUZTIRA	**83**	**77 % 93**	**85**	**78 %92**	**109**	**94 %86**	**98**	**87 %88**	**94**	**75 %79**	**87**	**78 %89**	**91**	**83 %91**
Kudeaketa Planetan burutu bako ekintzak (atzeratuak eta indargabetuak)	**6 atzerat**		**3 ezabat 4 atzerat**		**2 ezabatu 13 atzeratu**		**11 atzeratu**		**6 atzeratu 13 bertan behera**		**10 atzeratu 2 bertan behera**		**6 atzeratu 2 bertan behera**	

prop.→ proposamena; bete.→ betetze-maila

UDALERRIETAN HIZKUNTZA POLITIKA BERRIA (KONTSEILUAREN IKERKETAK-2006 eta 2010)

Kontseiluak sustaturik, 2006an hasi zen udaleko hizkuntza politikaren neurketa burutzen 10.000 biztanletik gorako 66 udalerrietan; 2006 eta 2010eko neurketetan 1etik 10erako baremoan 7,5/7,8 (ONGI) zegokion Gernika-Lumoko Udalaren hizkuntza politikari (ikusi koadroak).

2014ko neurketa egin zen, baina hurrenkera edo zerrenda eta baremazioa egin ordez, fitxak eta mapak egokitu ziren udalerrien arteko konparaketa egiteko. Gure kasuan ez zen aldaketarik nabarmentzen eta aurreko urteetako egoera eta udalerri multzoan jarraitzen genuen. Zehaztasunak hurrengo helbidean: http://kontseilua.eus/udal-neurketak/ . Hortik aurrera ez da neurketa gehiagorik egin.

2006ko NEURKETA

	HERRIA	NOTA	KALIFIKAZIOA	EZAGUTZA TASA
1	AZPEITIA	8,8512	OSO ONGI	94,8
2	LEKEITIO	8,8181	OSO ONGI	96,1
3	OÑATI	8,575	OSO ONGI	90,1
4	BERMEO	8,558	OSO ONGI	90,6
5	BERGARA	8,4963	OSO ONGI	84,4
6	ONDARROA	8,4199	ONGI	98
7	TOLOSA	8,2138	ONGI	85,3
8	BEASAIN	8,2003	ONGI	77
9	ORIO	7,8612	ONGI	92,4
10	GERNIKA-LUMO	7,5016	ONGI	86,6
11	ARRASATE	7,4121	ONGI	73,6
12	ELGOIBAR	7,2594	ONGI	73,8
13	SORALUZE	7,1674	ONGI	76,7
14	ZARAUTZ	7,1001	ONGI	86,4
15	MUNGIA	6,7969	NAHIKOA	76,2
16	LESAKA	6,6508	NAHIKOA	93,3
17	AZKOITIA	6,5213	NAHIKOA	90,7
18	HONDARRIBIA	6,4648	NAHIKOA	78,9
19	EIBAR	6,4169	NAHIKOA	78,3
20	ORDIZIA	6,3965	NAHIKOA	78,3

2010eko NEURKETA

	HERRIA	NOTA	KALIFIKAZIOA	EZAGUTZA TASA
1	BERMEO	9,3209	OSO ONGI	90,6
2	ORIO	8,7745	OSO ONGI	92,4
3	AZPEITIA	8,6925	OSO ONGI	94,8
4	LEKEITIO	8,6387	OSO ONGI	96,1
5	OÑATI	8,413	OSO ONGI	90,1
6	BEASAIN	8,2566	OSO ONGI	77
7	ZARAUTZ	8,2457	OSO ONGI	86,4
8	ONDARROA	8,1692	OSO ONGI	98
9	ARRASATE	8,0219	OSO ONGI	73,6
10	AZKOITIA	8,0139	OSO ONGI	90,7
11	BERGARA	7,8981	ONGI	84,4
12	GERNIKA-LUMO	7,8307	ONGI	86,6
13	HERNANI	7,5524	ONGI	74
14	TOLOSA	7,4127	ONGI	85,3
15	HONDARRIBIA	7,2073	ONGI	78,9
16	SORALUZE	7,1732	ONGI	76,7
17	ELGOIBAR	6,9456	NAHIKO	73,8
18	LESAKA	6,8786	NAHIKO	93,3
19	DONOSTIA	6,4666	NAHIKO	63
20	PASAIA	6,3909	NAHIKO	56,9

I.1.1- Pozteko ondorio orokorrak:

1.- Plan Estrategikoak ardatz hartuta, epe luzerako ekimenak abian jarri eta hizkuntza politikari iraupena eta egonkortasuna emateko aukera izan da, Legealdi batetik bestera kargu politikoak aldatu arren.

2.- Aurrekontuari dagokionean izandako bilakaera positiboa izan da; 2009-2013 epealdiko Plan Estrategikoan konpromiso ekonomikoa finkatu zen eta eutsi egin zaio plangintzaldi guztietan (udalaren aurrekontuko %2,2a gutxienez erabiltzea euskararen sustapenerako). Jo0kabide hori moteldu egin da. azken bi urteetan (2021 eta 2022) gutxigatik ez delako bete.

3.- Euskara Zerbitzuaren giza baliabideei dagokienean, aurrerapausua izan zen 2014-2018 epealdian, aldi baterakoak ziren lanpostuak estruktural bihurtu zirelako 2014an, nahiz eta lanpostu horietan daudenak interiNoak izan; gaur egun lanpostu horiek erregularizatzeko prozesuari eutsi zaio.

4.- 2018-2023 epeko Plan Estrategikoaren betetze-mailari bagagozkio, esan behar %90a bete egin dela. Beste kontu bat da lortu diren emaitzak eta ekintzekin asmatu dugun. Hori, esparruka egingo den azterketan ikusi ahal izango dugu, txosten honetako bigarren atalean.

5.- Esparrukako bilgune batzuk mantendu egin dira:
- Udal Eskola Kontseilua egonkortu egin da; Irakaskuntza (ikastetxeak)
- Berbalaguneko Talde Eragilea egonkortu egin da; Euskalduntze-alfabetatzea (AEK, Udal Euskaltegia, Busturialdean Euskaraz Bizi)
- Udaleko Talde Eragilea berbiztu egin da; Administrazioko Erabilera Planarekin inplikatutakoekin (zinegotziak, sindikatuak eta teknikariak)
- Euskalgintzaren lan-mahaia (BEB, Seber Altube, AEK, Hitzarguneko arduraduna; Hitzargune kanpainari lotutako bilgunea)

6.- Zenbait eragilerekin hasitako lan dinamikari eutsi zaio eta, kasu batzuetan, areagotu egin da:
- Ikastetxeak: euren normalizazio planak eta ESEP uztartzea (Udal Eskola Kontseilua bilgune eta Berritzegunearekin elkarlanean).
- Bertsozale elkartea: "Gu ere bertsotan" egitasmoa ikastetxeetan garatzeko hitzarmena
- AHIZE-AEK: Berbalagun, GUGAZTE, Eusliderrak eta ikastalde berezientzako ikastaroak (DBHko etorkinei errefortzua / gurasoen euskalduntzea)
- Soziolinguistika Klusterra: kale neurketa eta abarrak (jardunaldiak, hausnarketa jardunaldiak,…)
- Topagunea: "udazkeneko ekimena" 2021ean eta "2022ko Euskaraldia".
- Badihardugu Elkartea: "ahotsak" proiektua (harremana).
- Ziurtagiriaren elkartea: Bai euskarari ziurtagiriaren sustapena (hitzarmena)
- Kontseilua: euren urteko plangintzarekin bat egitea
- Urdaibai Rugby Eskola: hitzarmenak (Euskera olgetan errotu kanpaina, dinamizaziorako laguntza)
- Hitzargune kanpainako eragileak: enpresak, merkatariak/ostalariak eta elkarteak.
- Hitza egunkaria, Bagabiz aldizkaria eta Oiz-mendi telebista: hitzarmenak, zerbitzu eskaintza,…
- Gizarte Zerbitzuetarako Mankomunitatea eta Urtxintxa: "Gazterren" kale hezitzaileen ekimena lagundu eta Inmigrazio teknikariarekin elkarlana.
- Kirol Erakundea: harremanak estuak dira, Alkarbideko aisia-kirol lan-mahaia bitarteko eta kirol elkarteekin ditugun hitzarmenei jarraipena egiteko. Horrez gain BIKEE proiektuaren garapenak eragina izan du Gernika-Lumon izan diren esperientzia pilotuekin.
- Kultur Etxea: euskararen tratamendua programazio orokorrean, euskara arloko hainbat ekitalditarako azpiegitura, ….

7.- Beste udalerrietako Euskara Zerbitzuekin elkarlana egonkortu egin da. 2001ean eratu zen Bizkaia mailan Euskara Zerbitzuen bilgunea, Alkarbide. Erakunde horretan osatu ziren eskualdekako lan-mahaiak (euskaldungoa %70etik gorakoa duten udalerriak) eta Busturialdea/Lea-Artibaikoan garapartaide, UEMArekin batera. Hizkuntza Politikarako Sailordetatik merkataritzara begira antolatu den kanpaina orokorrarekin bat egin da ("Eskatu eta eskaini euskaraz") eta Aldunditik antolatutakoarekin ere bai ("Kaishop"), lurralde mailan beste euskara zerbitzuekin koordinatuz.

8.- 2019-2023 epealdian helburu estrategiko desberdinetarako gastatu dena nahiko parekatua da. Kontuan hartu behar da "erabilan" aintzat hartuta daudela Euskara Zerbitzuko langileriaren soldata gastuak eta "zehar lerroetan" sartuta dauden gastuetatik, ia 64.500€ komunikabideei dagozkielo (Hitza 19.500€ eta Oiz-mendi 45.000€ inguru). Azken gastu hau 2016ra arte "euskara elikatzearen" helburuarekin lotzen izan da eta hortik aurrera "zehar lerroko"-etara pasatu genuen, erabilerarekin ere zuzen lotuta dagoelako. Beraz, esan dezakegu gasturik gehiena "erabileraren helburua" lantzeko erabili izan dela.

9.- Dena dela, azken neurketetan izandako datuei erreparatuta, **ondorengoetaratzeko helburuan ahalegin berezia** egiteko beharrizana ikusi izan da eta azken urteetan gehitu egin da helburu horretarako gastatu dena.

10.- Ekintza kopuruei dagokienean, hiru helburu estrategikoen arteko alderaketa eginez gero, orekatu egin da ekintza kopurua. Horren arrazoiak:
- Administrazioko esparrua Plan Estrategikotik kanpo geratu da 2009tik hona, bere Erabilera Plan propioa duelako.
- Laugarren esparru bat sortu zen, "zehar lerrokoak" (transbersalak) eta esparru desberdinekin loturiko ekintzak hor kokatu dira.

11.- Hizkuntza politikari buruz Kontseiluak egindako neurketak nahiko positiboak izan ziren guretzat. Duela urte batzuk egin ziren neurketetan Gernika-Lumoko Udala 66 udalerri handietako rankingean lehenengo postuetan zegoen (2006an 10garren eta 2010ean 12garren, ONGI kalifikazioarekin); 2014ko neurketaren emaitzekin leku berean geundela esan dezakegu eta bazeuden arlo batzuk hobera egin dutenak (kaleko hizkuntza paisaia, langileriaren hizkuntza gaitasuna -udaletxean zein fundazioetan-, politikoen hizkuntza gaitasuna, zerbitzu hizkuntzari buruzko datuak,…).

12.- Kultur Etxean Kultura Plana eratu da eta euskararen tratamenduari leku berezia eskaini zaio.

13.- **Eskualde mailan enpresetan euskararen normalizazioa suztatzeko egitasmoa eratu da Foru Aldundiarekin elkarlanean** (Lanbide Ekimenak/behargintza eta Aldundiaren arteko hitzarmena, Euskara Zerbitzuak egindako zubi lanarekin); 2023an zehar gauzatuko da hitzarmena eta abian jarriko da zerbitzua, adjudikazioa bitarteko. Horrez gain, Aldundiak lurralde mailan udalekin elkarlanean ekin beharrari eutsi dio azken bi urteetan: Kaishop kanpaina merkataritzan, BIKEE egitasmoa kirol mundurako

I.1.2.- Kezkatzeko ondorio orokorrak:

1.- Administrazioko Erabilera Planean gora-behera asko izan dira, politikoen aldetik inplikazio falta batzuetan eta, beste batzuetan, Euskara Zerbitzuak daukan transbertsalitate-eza administrazio barrukoari begira, nahiz eta udal ordenantza hor egon, Erabilera Plana onartuta, erabilerarako irizpideak finkaturik, ….

2.- Bizkaiko Foru Aldundiaren ildo estrategikoak ez ditugu ondo ezagutzen. Horrek oztopatu egiten du Udaletako Euskara Zerbitzuek sarritan egindako aldarrikapena: Alkarbide bilgunean Aldundiarekin elkarlana areagotzea, Lurralde mailan euskararen sustapenerako politika globala diseinatzeko. Dena dela, esan dezakegu azken bolada honetan gauzak zuzendu direla: BIKEE programa lurralde guztirako (Bizkaia Kirola Ere Euskaraz), arlo sozioekonomikoa eskualdeka lantzeko diru-laguntza nominatiboak eskualde-erakundeei, merkataraitzara begirako Kaishop kanpaina,…)

3.- Gernika-Lumoko Udalaren hizkuntza politikak baditu akats batzuk. Kontseiluak 2006 eta 2010 urteetako azterketa konparatiboa egin zuenean nabarmendu zituen kezkak gur egun ere hor diraute:

- **Hizkuntza paisaia**: kaleko obra iragarkiak erdara hutsez (azpikontratazioak kontrolatu beharra). Arartekotik ere kexa batzuk iritsi dira.
- **Udalaren komunikazioa**. Kasurik okerrenak: Udal aldizkarian euskararen tratamendua (gaur egun elebitasunaren aldeko apostua egin da, hizkuntza irizpideak baztertuz; atzerapausua izan da, zeren aurreko zenbakietan euskarazkoa %60a izatera iritsi zen) eta interneteko hizkuntza erabilera (udalaren web orria eta sare sozialen kudeaketa).
- **Azpikontratazioetan (zerbitzu kontratuetan zein obretarako kontratuetan)** euskara lehenesteko erabakia hartuta dago, baina Euskara Zerbitzuak ez du aukerarik horren ikuskapena egiteko, Kontratazio-mahaiaren informaziorik ez duelako jasotzen. Sarritan eskatu izan da Euskara Zerbitzuak partaidetza izan dezan protokoloren bat finkatu beharra (kontratazio-mahaian parte hartu ez arren, pleguen eta abarren informazioa jasotzeko moduren bat zehaztu).

4.- Esparru batzuetan sortu nahi ziren bilguneak ezin izan dira gauzatu:
- Bilgune BERRIA: Toki Garapenerako Sailaren inguruko Foroa (Turismo, merkataritza, ostalaritza). Foroa bera sortu ez den arren, arloko teknikari eta arduradunekin koordinazioa lantzen da.
- Bilgune BERRIA: Hiri Planeamendurako Lan Taldea. Planeamendu berria aitzakia, hizkuntza irizpideak kontuan hartzeko ELE metodologia aplikatzeko lan taldea (Planeamendua Moldatuko duen Talde zuzentzailea, udal Arkitektoa, Euskara zinegotzia, Euskara teknikariak). Etenda dago tramitazioa eta zain gaude.

5.- Erbestetik etorritakoek biztanlerian duten pisua gorantza joan da (batik bat errumaniarrena), Espainiatik etorritakoena baino askoz gehiago. Beraz, euskararen mundura ez ditugu berez erakarriko, euren ama-hizkuntzari uko ez diotelako egingo; bide bakarra da euskararen beharra eta prestigioa sentiaraztea eta, hori, euskaldungoak erabilpenaren bidez erakutsi beharko die. Hor dago gure erronka.

6.- Etorri berrien seme-alaben matrikulazioan eragin nahia. Azken urteetan matrikulazioa ikastetxe desberdinetan orekatu egin da zerbait, baina Mertzede ikastetxean matrikulatzeko joera da nagusi oraindik. Zentro horretan gertatzen den pilaketa hori kaltegarria da erabilerarako, euskaldunen dentsitate eskasak aukera gutxiago ematen duelako erabilerarako. Ez dakigu Hezkuntza lege berriak planteatutako parametroen berriekin horri konponketa emango zaion.

II.- BALANTZEA ETA EGOERAREN HAUSNARKETA, HELBURU ESTRATEGIKOKA ETA LAN-ESPARRUKA

II.1- Lehenengo helburu estrategikoa: EUSKARA ONDORENGOETARATZEA

ADIERAZLEAK (egungo biztanleria)

Gernika-Lumoko biztanleriaren bilakaera



- Biztanlerian helduen eta adinekoen pisua areagotzen joan da, batik bat 65 urtetik gorakoena. Beraz, biztanleria zahartzen ari da; 0-19 urte bitarteko biztanleriaren kopurua gutxituz joan da, nahiz eta 2011-2017 urteetako tartean jaoitza-tasa zerbait berpiztu.

Atzerriko biztanleriaren bilakaera eskualdean, 2011-2022

	2011ko URTARRILAREN 1ean			2015eko URTARRILAREN 1ean			2022ko URTARRILAREN 1ean		
	Biztanleria orokorra	Atzerritarrak	%	Biztanleria orokorra	Atzerritarrak	%	Biztanleria orokorra	Atzerritarrak	%
AJANGIZ	--	--	--	--	--	--	480	8	1,6
ARRATZU	393	8	2%	405	14	3,4	414	21	5
BUSTURIA	1.795	62	3,4%	1.698	43	2,5	1.675	92	5,5
EA	918	30	3,2%	859	41	4,7	839	61	7,2
ELANTXOBE	425	23	5,4%	385	4	1	354	18	5
ERRIGOITI	557	20	3,5%	508	15	2,9	512	23	4,5
FORUA	997	56	5,6%	956	46	4,8	912	60	6,5
ARTEAGA	898	45	5%	873	40	4,5	867	41	4,7
GERNIKA	16.483	1.505	9,1%	16.811	1580	9,4	16.899	1.874	11
IBARRANGELU	642	14	2,1%	644	8	1,2	686	27	3,9
KORTEZUBI	432	12	2,7%	469	18	3,8	444	12	2,7
MENDATA	386	6	1,5%	385	10	2,5	396	17	4,2
MORGA	413	8	1,9%	425	16	3,7	424	15	3,5
MUNDAKA	1.948	102	5,2%	1.906	79	4,1	1.873	68	3,6
MURUETA	309	11	3,5%	314	5	1,5	329	8	2,4
MUXIKA	1.493	50	3,3%	1.460	36	2,4	1.502	105	7
NABARNIZ	236	5	2,1%	238	10	4,2	266	9	3,3
SUKARRIETA	362	18	4,9%	374	16	4,2	367	14	3,8
GUZTIRA	28.687	1.975	6,8%	28.967	1.996	6,8	29.510	2.493	8,4

- Busturialdeko Mankomunitateko udalerrietan dauden atzerritar guztien **%79,15a biltzen da Gernika-Lumon.**
- Gernika-Lumon 2005 urtean 802 ziren etorri berriak (%4,9) eta 2022an 1.874 (%9,4). Beraz, **ia bikoiztu egin da etorri berrien kopurua.**

NAZIONALITATEA	2014 urtea	2015 urtea	2022 urtea
ERRUMANIA	902	953	957
ARGENTINA	57	58	59
MOLDAVIA	49	47	59
SAHARA	47	45	41
TXINA	44	44	57
BOLIVIA	49	41	31
BRASIL	53	40	71
MAROKO	41	39	77
UKRANIA	33	34	53
PORTUGAL	34	33	19
SENEGAL	38	31	29
PARAGUAI	32	31	19
PAKISTAN	18	27	37
ESTATU BATUA	20	21	19
EKUADOR	17	14	0
KAMERUN	12	8	0
ERRESUMA B.	7	8	0
KOLONBIA	10	8	30
BESTE BATZUK	0	0	316
OROKORRA	1.579	1.580	1874

- Atzerriko biztanleetatik **%58a (1.088) Europatik dator** (Batasunetik edo ekialdeko lurraldeetatik; gehiengoa errumaniatik: 957) eta gainerakoak kanpotik, mundu osoko lurraldeetatik. Hegoameriketakoak ere kopuru esanguratsua dira (400 bat).

- Eskualdeko atzerritar guztien **%49 dira emakumeak eta beste horrenbeste gizonezkoak;** 2008tik hona mantendu egin dira portzentaje horiek.

- 2015ean atzerriko **18-39 urte bitarteko biztanleen portzentajea %49,35a** zen (2008an %50a zen) eta 0-17 urte bitartekoena %18,4a (2008an %16a zen). Ez daukagu 2022 urteko pareko daturik. Baina argi dago etorritakoen gehiengo handia laneratzeko adinean datozela, lan bila (kontuan hartu beharko da horrek lan mundun duen eragina).

ADIERAZLEAK (euskararen ezagutza eta bilakaera)

2018-2021 tarteko bilakaera (euskaldunak)

	1986	1996	2006	2011	2016	2021
-Euskaldunak	**63,23**	**70,58**	**67,87**	**67,56**	**69,90**	**68,30**
--Euskaldun alfabetatuak	32,27	51,51	73,64	72,93	85,17	84,04
--Euskaldunak partzialki alfabetatuak	25,47	15,44	23,53	22,16	11,67	10,35
--Euskaldunak alfabetatu gabeak	5,49	3,63	5,03	4,89	3,15	5,59
- Ia-euskaldunak	**18,93**	**13,38**	**17,87**	**16,01**	**11,60**	**14,70**
- Ia-euskaldun alfabetatuak	-	-	50,55	52,08	64,00	54,11
- Ia-euskaldun alfabetatu gabeak	-	-	29,32	26,48	9,81	29,90
- Ia-euskaldun pasiboak	-	-	20,11	21,43	26,18	15,98
- Erdaldunak	**17,84**	**16,03**	**14,25**	**16,41**	**18,51**	**17,10**

Euskal AEko 2 urteko eta gehiagoko biztanleen ehunekoa per euskara-maila eta aldia. Gernika-Lumo.



Euskararen ezagutza Gernika-Lumon – bilakaera (1986-2021) *(Iturria: Eustat)*



Grafikoari erreparatuta, 1986tik 2021era bitarteko datuen bilakaerak hauxe diosku:

- **Euskaldungoak gora egin du**; 1986-1996 tartean 7 puntu gora eta 1996-2021 epean 2 puntu behera.
- **Ia-euskaldunen portzentajea** 1986tik hona jaitsi egin da 4 puntu.
- **Erdaldungoaren portzentajea mantendu** egin da 1986tik ona.

Euskaldungoaren bilakaera – udalerrien arteko konparaketa *(Iturria: Eustat)*

UDALERRIA	*1981*	*1986*	*1991*	*1996*	*2001*	*2006*	*2011*	*2016*	*2021*	*Aldea*
Gernika-Lumo	*61,1*	*64,10*	*66,30*	*70,90*	*69,3*	*67,87*	*67,56*	***%69,89***	***68,26***	***+7,16***
Bermeo	*73,8*	*74,6*	*77,4*	*78,0*	*75,7*	*73,52*	*72,69*	*%73,34*	*71,55*	*-2,25*
Mungia	*56,1*	*60,1*	*59,3*	*58,8*	*55,09*	*55,92*	*53,18*	*56,06*	*56,95*	*+0,85*
EUSK. AUT. ELK.	*21,5*	*24,6*	*26,3*	*30,9*	*32,31*	*37,50*	*37,24*	*---*	*43,30*	*+21,80*



	1986	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Haurrak %	65,3	73,4	86,2	83,9	75,9	87,5	92,1
Gazteak %	54,7	62,0	78,3	86,7	79,4	80,8	79,0
Helduak %	62,7	61,2	63,8	62,4	64,3	62,4	62,2
Adinekoak %	74,0	75,9	74,2	69,4	68,3	65,7	65,8

- Ez daukagu adin taldekako ezagutzari buruzko daturik 2016tik hona, Eustat-ek errolda lanak egiterakoan datu horiek ez dituelako prozesatu.

- Grafiko hau hurrengo orrialdeko grafikoekin erkatu behar da, zeren **gauza bat da portzentajeak eta beste bat biztanleria osoan adin-talde bakoitzak daukan pisua**. Adinaren araberako euskaldungoaren banaketa ikusita, euskaldun portzentajerik handiena haurren eta gazteen adin-taldeetan dago, baina euskaldun gehien kokatzen den adin tartea helduen multzoa da (29-54 adin-tartea) eta berau erabilera aldetik apalagoa da.





- Aurreko orrialdeko grafikoan agertzen denez, portzentajetan **gazteak dira euskaldunenak gaur egun**, haurrekin batera, baina ez dezagun engainatu gure burua, biztanle kopuruei erreparatuta gazte eta haurren pisua biztanlerian gutxitu egin delako (1981ean 0-19 urte bitartekoak 5.124 biztanle ziren -%33,10- eta 2017an 2.905 biztanle -%19,49-).

- **Erdaldungoaren olatuaren gailurra 1981ean** 5-50 urte bitartean kokatzen zen, **haur eta gazteak nagusi** izanik.

- **2001ean euskaldungoaren olatuaren gailurra desplazaturik** zegoen eta 15-54 urte bitartean kokatzen zen. Nagusi gazteak eta 44 urtera arteko helduak.

- **2016ko olatuaren gailurra, ostera, kamustu egiten da** eta adin tarte guztietan euskaldun kopuruak berdintzeko joera dago. Gauza positiboa da euskaldunen dentsitatea adin tarte guztietan gorantza eta berdintzen joatea, euskaraz aritzeko aukerak areagotu egiten direlako.

- **20 urteko epean 65 urtetik aurrerako adin tartea harrapatuko du olatuak**; euskaldunen kopuruak/dentsitateak gora egingo du adin tarte horretan ere.

Udalerrian elebidunen kokapena *(2001: Eustat)*

AUZOAK (neurtutako biztanleria 14.519)	ELEBIDUNAK		ELEB. HARTZ.		ERDALDUNA	
	KOP	%	KOP	%	KOP	%
Lumo (968)	718	75	84	8	166	17
Bizkaia kalea (1350)	959	70	191	18	200	12
S. Roke/Don Tello (1162)	909	79	121	9	132	12
Alde Zaharra (1108)	883	80	117	10	108	10
Sindik/Ospitalea (1217)	862	70	161	15	194	15
Lurgorri-Hilerria (1952)	1239	62	305	17	480	21
Errenteria (2279)	1420	62	312	15	547	23
Poligono-Calzada (2013)	1362	67	309	18	342	15
Txorraburu (2398)	1744	73	320	14	334	13
	10.096	**69,3**	**1920**	**17,3**	**2503**	**13,4**

Udalerrian elebidunen kokapena *(2011: Eustat)*

AUZOAK (neurtutako biztanleria 15.558)	ELEBIDUNAK		ELEB. HARTZ.		ERDALDUNA	
	KOP	%	KOP	%	KOP	%
Lumo (1571)	1.107	70	191	13	273	17
Bizkaia kalea (1282)	853	66	136	11	293	23
S. Roke/Don Tello (1182)	816	69	143	12	223	19
Alde Zaharra (1186)	878	74	109	9	199	17
Sindik/Ospitalea (1372)	940	68	160	12	272	20
Lurgorri-Hilerria (2435)	1.531	63	352	15	552	22
Errenteria (2236)	1.337	60	341	15	558	25
Poligono-Calzada (1916)	1.281	67	253	13	382	20
Txorraburu (2378)	1.743	73	270	12	365	15
	10.486	**67,40**	**1955**	**12,56**	**3117**	**20,00**

Bai 2001eko zein 2011ko datuen arabera, euskal hiztunen banaketa auzoka nahiko orekatua da Gernika-Lumon; euskaldunak auzo guztietan dira nagusi (%60/%74 bitartekoa), desberdintasunak desberdintasun. **Elebidunen (euskaldunen) kopuru orokorrak gora egin duen arren asko (10.096tik 10.486ra), portzentajea 2 puntu baxuagoa da.**

Horren zergatia, erdaldungoaren igoeran dago (2503tik 3117ra) eta horrek dakar erdaldungoa 2001-2011 epean %13,4tik %20ra igo dela.

Auzokako datuen irakurketak hauxe adierazten digu:

- (*) Horiz markatutakoak (Lumo eta Lurgorri) dira biztanle igoera handia izan dutenak 2001etik 2011ra bitartean.
- (*) **Elebidunen portzentajea oso orekatua dago,** baina zerbait baxuagoa da hurrengoetan: Errenterian eta Lurgorrin. Alde zaharrean kopuru txikiagoa den arren, portzentajerik handiena daukagu.
- (*) **Elebidunen portzentajea jaitsi egin da zerbait auzorik gehienetan.** Mantendu hurrengoetan: Lurgorri, Poligono-Calzada eta Txorraburu.
- (*) **Elebidun hartzaileen portzentajea ere jaitsi egin da orokorrean.** Baina, azpimarratzekoa da Lumo aldean izan den igoera.
- (*) **Elebidun hartzaileen portzentajeak ere nahiko parekatuak daude auzoka,** Lurgorri eta Errenterian zerbait gehitxoago bada ere.
- (*) **Erdaldun-elebakarren portzentajeak gora egin du nabarmen (ia 7 puntu)** eta nabarmen gora hurrengoetan: Bizkaia kalea (Juan Calzada), S, Roke/Don Tello eta Alde Zaharrean.
- (*) **Erdaldun-elebakar portzentajerik altuenak,** Errenterian, Lurgorrin (hauetan mantendu egin da portzentajea) eta Bizkaia kalea/Juan Calzada (kasu honetan ia bikoiztu egin da portzentajea).

Gernika-Lumoko euskaldun alfabetatuak -1996-2021:
Gaur egun Gernika-Lumoko euskaldungoa %68,4a izanik, gehiengoa, %84a, alfabetatua da; portzentajeak gora egin du nabarmen 2011tik hona, 11 puntu gora,



Gernika-Lumoko ia euskaldun alfabetatuak – 1996-2021:
Egungo ia euskaldunen portzentajea 2021ean %14,70a bada, hauetatik %54a alfabetatua da; kontuan hartu behar da 2011tik 2016rako tartean gora egin zuela 12 puntu, baina azken bost urteetan behera egin du berriro 10 puntu. Horren arrazoia jakitea ez da erraza (etorkinak al dira pilatu ia euskaldunen atalean?).



Pozteko ondorioak (ondorengoetaratzea):

- **Kontuan hartzekoa da Gernika-Lumoko kasuan 1981-1990 bitartean desanexioak izan zirela** eta, beraz, 1981eko datuetan inguruko herrietako (Nabarniz, Arratzu, Ajangiz, Foru, Murueta, Kortezubi) biztanle euskaldunak ere aintzat hartuta daudela; 2001etik aurrerako datuak, ostera, Gernika-Lumoko biztanleenak bakarrik dira; horrek esan gura du Gernika-Lumo bera bakarrik hartu izan bagenu, 1991tik honako tartean euskaldunen portzentajearen igoera askoz handiagoa izan zitekeela.

- **2021ean egindako erroldaren arabera, Gernika-Lumon hamar lagunetik ia zazpi (%68,3) euskaldunak dira** (1986an baino 5 puntu gehiago, aurreko puntuan esandakoagatik pozgarriagoa); ia euskaldunekin ere berbera, biztanleriaren %14,70 dira, kopurutan gehiago; ostera, etorkin andana izanda ere, %17,10a da erdalduna 2021ean, 1986ko parekoa (hor daude etorkinak, %10 bat, errumaniarrak %6,5 inguru).

- Ondorioz, bada, **ezagutza nolabait gaztetzen** ari dela azpimarra genezake. Hau da, tradizionalki zaharrek bete duten lekua haurrek eta gazteek hartu dute orain. Datozen urteetan ere bide horri eutsiko zaiolakoan gaude eta hazi berriek helduen lekua hartu ahala euskaldungoak gora egingo du adin talde guztietan.

- **1986tik 2021era bitartean erdaldungoaren portzentajea mantendu egin da (%17,84 / %17,10).** Azpimarratzekoa da azken 20/25 urteetan gure herrira etorkin multzo handia etorri den arren (gaur egun biztanleriaren %10a), erdaldungoaren portzentajea 1986koaren parekoa izatea. Horrek esan nahi du erdaldunen "multzo handi" horretatik euskaldunen eta ia euskaldunen multzora gehitu direla asko (hezkuntza eta euskaltegien lan emankorra atzean).

- **Gernika-Lumon 1981-2021 bitartean euskaldungoak gora egin du 7 puntu,** Euskal Autonomia elkartearen joerari eutsiz. Inguruko udalerri batzuetan mantendu edo behera egin du (adib.: Mungian +0,85; Bermeon -2,25).

- 2001eko zein 2011ko datuen arabera, **euskaldunen banaketa auzoka nahiko orekatua zen Gernika-Lumon**; euskaldunak auzo guztietan ziren nagusi (%60/%74 bitartekoa), desberdintasunak desberdintasun. Gure ustea da mantendu egiten dela egoera hori.

- Gernika-Lumon, **2001-2016 urte bitartean, ezagutzaren bilakaerarik positiboena jasan zuten adin taldeak haurrena eta bereziki gazteena** izan ziren; haurrek 27 puntuko igoera eta gazteek 25 puntukoa. Horrek ekarri du hurrengo urteetan helduen adin taldean euskaldungoa areagotzea eta euskaldungoaren olatua (22. Orrialdeko grafikoa) desplazatzea helduengana.

- **2016ko euskaldungoaren olatuaren gailurra, beraz, kamustu egin da** (22. orrialdeko grafikoa) eta adin tarte guztietan euskaldun kopuruak berdintzeko joera dago. Gauza positiboa da euskaldunen dentsitatea adin tarte guztietan gorantza eta berdintzen joatea, euskaraz aritzeko aukerak areagotu egiten direlako. Hogei urteko epean 65 urtetik aurrerako adin tartea harrapatuko du olatuak eta euskaldungoak gora egingo du adinekoetan ere.

- **Euskaldun alfabetatuen portzentajea esanguratsua da** (%84,04) eta ia euskaldun alfabetatuena ere bai (%54).

Kezkatzeko ondorioak (ondorengoetaratzea):

- **1986tik 2021era bitartean erdaldungoaren portzentajea mantendu den arren,** azpimarratzekoa da 2006an udalerrian erroldatutako etorri berriak %6 bat zirela eta gaur egun %10 bat; %10 horretatik %7 bat dira errumaniarrak eta helduek gaztelaniarako joera dute errazago zaielako.

- **Ez dugu 2006tik honako datu zehatzik adin-taldeei dagokienean,** Eustat-ek egindako azken erroldetan ez zaiolako lehengo inkesta sistemari jarraitu (heziketa mailako eta euskararen ezagutza eta erabileraren gaineko galderak ez dira egin); 2011n ere datu globalak baino ez ditugu (euskaldunak, ia euskaldunak, erdaldunak).

- **1.981etik 2021era euskaldunen portzentajeak gora egin duen arren 7,2 puntu, kontuan hartu behar dira bidean izan diren gora-beherak**; 1981-1996 epean gora 10 puntu, 1996tik 2006ra inflexioa (behera 3 puntu), 2006tik 2011ra mantendu eta 2011tik 2021era gora puntu bakarra.

- **Gazteen ezagutzak 1986tik 2001era izan zuen bilakaera positiboak (%54,7 / % 86,7), inflexioa izan du aurrerantean** eta 2016an %79,00a da. Arreta ipini behar zaio datu honi.

- **2001 eta 2006ko erroldetako datuetan, haurren ezagutza gazteen ezagutzaren azpitik zegoen**. Etorri berrien seme-alaba txikiak eskolaratuak izan eta gaztarorako euskaldunduak izatearen ondorioa; hezkuntza sistemaren lan nekegarria dago horren atzean.

- **Adinekoen adin-taldea izan da euskararen ezagutzan behera egin duena nabarmen** 1991etik 2016ra eten barik, behera 8 puntu. Arrazoia: 1960-1975 urte bitarteko fenomeno industrialaren ondorioz gure udalerrira etorri eta euskara bereganatzeko baldintzarik ez zutenek izan, adin tarte horretan pilatzen ari dira urte hauetan.

- Portzentajetan euskaldunenak haurrak eta gazteak diren arren, biztanle kopuruei erreparatuta **gazteak eta haurrak asko gutxitu dira** (1981ean 0-19 urte bitartekoak 5.124 biztanle ziren eta 2011n 2.905 biztanle) eta **euskaldunik gehien hartzen duen esparrua 29-54 urte bitarteko biztanleria da, erabilera aldetik apala** eta gora egiten ez duena.
- 2001ean elebidunen banaketa udalerrian orekatua bazen eta ordutik 2011ra **elebidunen (euskaldunen) kopuru orokorrak gora asko egin duen arren (10.096tik 10.486ra), portzentajea 2 puntu baxuagoa da.** Elebidunen portzentajerik baxuenak Lurgorrin eta Errenteria aldean daude (%62, urteetan zehar mantendu dena).
- **Erdaldun-elebakarren portzentajea mantendu egin da.** Berdina da 1986an eta 2021ean (%17), nahiz eta biztanleriak gora egin; etorkin gehiagorekin erdaldungoaren multzoa hortxe dugu beti eta euskalduntzearen ahaleginak bere fruituak izan dituen arren, lan horri eutsi behar zaio etenik barik aurrerantzean ere.

II.1.1.- Familia jarraipenerako esparrua – Balorazioa:

Ama-hizkuntza euskara (%) (iturria: Eustat)

UDALERRIA	1986 (%)	1991 (%)	1996 (%)	2001 (%)	2006 (%)	2011 (%)	2016 (%)	2021 (%)	ALDEA
Gernika-Lumo	60,8	60,6	60,7	59,80	55,42	53,50	52,54	49,1	-11,7
Bermeo	71,3	71,5	70,2	67,00	62,60	59,91	56,26	53,61	-17,69
Mungia	56,8	54,7	48,9	44,14	38,82	35,85	32,48	31,02	-24,32
EUSK. AUT. ELK.		20,6	20,6	18,80	19,41	19,27	18,26	20,40	---

Beheranzko bidea dugu orokorrean; 2001-2006 urte bitarteko inflexioa nabarmentzen da hemen ere.

Etxean euskaraz bakarrik (gehien bat) egiten dutenen portzentajea (iturria: Eustat)

UDALERRIA	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021	Aldea
Gernika-Lumo	% 41,07	% 41,00	% 41,79	% 41,45	%40,89	%40,15	%31,11	-9,96
Bermeo	% 55,74	% 55,89	% 53,56	% 49,24	%45,21	%41,40	%38,61	-17,13
Mungia	% 34,00	%31,57	%27,64	%22,59	%22,75	%21,78	%17,31	-19,69
EUSK. AUT. ELK.	% 13,79	% 13,63	% 13,64	%13,02	%14,08	%14,30	%13,14	-0,65

Etxeko erabilera guztira eta auzoka –Gernika-Lumo 2016 (iturria: Eustat)

Gernika-lumo	Guzt.	Euskaraz	Eusk-Gazt (biak)	Gaztelaniaz	Beste bat
GUZTIRA	15558	6248 (%40,15)	2176	6624	510
Casas Sindicatos-Hospital	1372	581 (%42,34)	201	539	51
Casco Histórico	1186	517 (%43,59)	184	429	56
Lurgorri-Cementerio	2435	871 (%35,77)	341	1169	54
Lumo	1571	638 (%40,71)	240	669	24
Polígono Calzada	1916	793 (%41,38)	249	808	66
Errenteria	2236	789 (%35,28)	286	1079	82
San Roque-Don Tello	1182	509 (%43,06)	150	463	60
Txorroburu	2378	1046 (%43,98)	347	921	64
Zona C/Bizkaia	1282	504 (%39,31)	178	547	53

Anbulatorioko pediatria zerbitzukoek egindako datu-bilketa 2012ko ekainean zehar

Lagina	468 harreman gurasoekin eta 311 harreman haurrekin (ekainean zehar)	
Gurasoak Gernika-Lumokoak	%85	Gernika-Lumokoak baino ingurukoak esan beharko, anbulatorioak eskualderako zerbitzua ematen duelako
Gurasoak atzerritarrak	%15	Jaiotza tasaren igoera etorri berrien familiei diegu zor eta etorri berriak biztanleriaren %10a baino izan ez arren, pediatriako zerbitzuetan %15a dira.
Pediatriakoekin gurasoek euskaraz	%71	Pediatria zerbitzuan helduek ere gehiago erabiltzen dute euskara (zerbitzuko langileen motibazioa bitarteko? Bertako langileek euskaraz egin eta euren "prestigioa"-k erakarrita? Asertibitatea?) Datu honek, udalerriko euskaldunen portzentajea gainditu egiten du (%67,87) eta helduen kaleko erabilera ere nabarmen (%43,30)
Pediatriakoekin gurasoek euskaraz hala-hola	%4-5	Kopuru txikia da eta gurasoen zein umeen kasuan beretsua, baina datu interesgarria, konplejuak baztertzen ari direlako. Elebidun hartzaile direnak sar ditzakegu hemen.
Pediatriakoekin gurasoek erdaraz	%25	Guraso etorri berriak (%15) eta bertokoen %10a pilatzen dira hemen.
Pediatriakoekin umeek euskaraz	%85	Umeen erabilera ikusita (%85), ondorioa: kaleko umeen erabilera ere (%69,10) gainditu egiten da. Pediatriara joan diren guraso/tutore euskaldunen eta euskaraz aritu izan diren umeen portzentajeak berdinak dira (%85); horrek adierazten digu ume euskaldunen euskararekiko atxikimendua %100koa izan dela.
Pediatriakoekin umeek euskaraz hala hola	%6	Kopuru txikia da eta gurasoen zein umeen kasuan beretsua, baina datu interesgarria, konplejuak baztertzen ari direlako. Portzentaje hau guraso atzerritarrak dituzten umeen multzotik datorrela esan dezakegu, hizkuntza integrazioa nolabait gauzatzen delako seinale.
Pediatriakoekin umeek erdaraz	%9	Beraz, bertoko umeek guztiek dihardute euskaraz pediatriakoekin; gainera, atzerritarren bisiten portzentajea %15 izanik, esan nahi du beraietatik heren batek ere euskarari eusten diola gune horretan.

Gernikaldeko 12 urteko ikasleei eta gurasoei egindako neurketa (iturria: Gernika-Lumoko Berritzegunea – 2010)

(ULIBARRI programako GELARGAZKIA) - Emaitzen irakurketa:

Eremu erdaldunak:

1. Internet: **2.49**
2. TB, Bideoa, Zinea, prentsa: **2.49**
3. **Gurasoak beraien artean: 2.52 (%50,4).** Gernikaldeko betiko arazoa: umeei euskaraz eta nagusien artean, erdaraz.
4. **Auzoko ezezagunekin:2.95 (jaso). 3.15 (egin)**. Zergatik ezezagunei erdaraz zuzentzeko joera?

Eremu euskaldunenak:

1. Eskola: **4** eta **5** tartean, hau da, eremu euskaldunena
2. Eliza: **4**tik gora
3. Anai-arrebekin: **3,72 (%74)**. Gurasoekin baino gehiago egiten dute euskaraz. Guraso bat erdalduna den kasuetan ere, euren artean euskaraz aritzen direla ematen du.
4. **Kaleko lagunekin. Aztertzeko modukoa da.** Gelako lagunekin: **4.9 /4.20**, baina kaleko lagunekin: **3.71 /3.67**. Normalean, kaleko eta gelakoak berberak izanik, eragina al du eskolan egoteak?
5. Auzoko ezagunekin: **3.72** (egin) **3.60** (jaso). Aldea dago egin eta jasoren artean, handirik ez baina.
6. Gurasoekin: **3.28** (egin eta jaso -%65,6-). Anai-arrebekin egiten dutenarekin alderatuta (3,72) eta guraso erdaldunen kopurua kontuan hartuta, ondorioa: guraso bat erdalduna den kasuetatik ere %8,4 batek euskaraz egiten du ana-arrebekin.
Adin tarte honetako gurasoen datuak **(BRANKA):**

- Guraso biak euskaldunak: % 57
- Guraso biak erdaldunak: % 16
- Guraso bat euskalduna: % 27

7. Kirolean (eskolan): **3.70 /3. 30** eman du bataz-bestekoa. Kasu honetan, komenigarria litzateke bereiztea eskolan egiten dena, nahiz eta ikastordutik kanpo izan. Kirol elkarte batzuk aztertzeko aukera emango luke, Gernikaldean behintzat.

Pozteko ondorioak(familia jarraipena):

1.- Euskaldungoaren gehiengoa 20-45 urte bitartean pilatzen ari da eta hortxe kokatzen dira urte gutxi barruko gurasoak; D ereduan hezitakoak izanik, euskararen ondorengoetaratzea etxean gauzatzeko baldintza egokiak dira. Horixe adierazten zaigu helduen multzoko datuen arabera (euskaldunak 1986an %62 eta 2006an %64, portzentajeak gora 2 puntu, baina kopurua nabarmen handiagoa); esan daiteke 2016an eta 2021ean joera hori mantendu egiten dela, nahiz eta datu zehatzik izan ez.

2.- Adinekoen artean euskaldunen portzentajea jaitsi egin den arren, kopurutan euskaldun gehiago dira: 1986an 1.827 biztanleetik %74, hau da, 1.351 euskaldunak; 2001ean 2.864 biztanletik %69,4, hau da, 1.987 euskaldunak. Kontuan hartzekoa da euskaldungoaren olatua helduengan hurbildu dela eta 20 urteko epan adinekoena ere hartuko duela.

3.- Plan Estrategikoaren bitartez landu beharreko esparru berria zen 2003an familiarena eta lehenengotik eskaini zitzaion diru kopuru garrantzitsua (2003an 16.828 €, helburu nagusirako aurrekontuaren %9,17). Gero, jaitsi egin zen asko (2011an 12.000 euro eta 2012an, krisia bitarteko, 1.500 euro); familiarena lantzeko zeharbidetik ere jo da, hezkuntza esparrutik, zentroetako Eskolaz kanpoko eta Normalkuntza Planetarako diru laguntzen bitartez; 2022an berriro eutsi zaio atal honi zuzenean, 2021eko erabilera datuak kontuan.

4.- Anbulatorioaren dinamikan eragitea posible izan da Alkarbideren bitartez. Emaginaren zerbitzuak euskaraz eskaini ahal izateko protokoloak finkatu ditu Osakidetzak gure eskualdeari dagokionean.

5.- Anbulatorioko pediatria zerbitzua euskararen arnasguneetako bat dela esan dezakegu (2012ko ekainean zehar egindako inkesta oinarri; pena bat ez izatea ordutik honako datu bilketarik).

6.- **Etxean euskara erabiltzeari buruzko auzokako datuak 2016koak dira azkenak, eta positibotzat jo daiteke** udalerrian nahiko **orekatua** izatea erabilera hori auzo guztietan (zerbait jaisten de Lurgorrin eta Errenterian). Getorik ez dagoelako seinale.

7.- Gurasoen transmisioari dagokionean datu oso onak atera ziren irakaskuntza mailan 2010ean (Berritzeguneak orduan LH eta DBHkoen ikasleen gurasoen artean egindako inkestaren emaitzak). 2005-2006 ikasturteko datuekin konparatuz, jatorrizko hizkuntza erdara zuten ikasleen kopurua jaitsi egin zen nabarmen ziklo guztietan (salbuespena, LH-ko 1. zikloa) eta jatorrizkoa biak dakartenak ere gehiago dira, aipatu salbuespena kontuan. Ondorioa: guraso euskaldunen inplikazioa handia da, ume zaintzailea/attitte-amumak euskaldunak…

8.- Berritzeguneak 2010ean LH eta DBHkoen ikasleen gurasoen artean egindako inkestaren emaitzak: Ikasleek anai-arrebekin euskaraz egiten dutena 3,72 -%74- eta guraso erdaldunen kopurua kontuan hartuta (biak erdaldunak %16 eta euretako bat erdalduna %27). **Ondorioa: guraso bat erdalduna den kasuetatik ere %8,4 batek euskaraz egiten du anai-arrebekin**.

9.- Alkarbide Erakundearen koordinaziopean, **beste Euskara Zerbitzuekin elkarlanean kanpaina eta material asko ekoizten ari gara** (Udako urteroko sentsibilizazio kanpaina, Ume elebidunen gurasoentzako eskuliburua, Ku-Ku! Liburuxka -haurrekin hitz egiten hasteko-, Aholkuak seme-alabek irakur dezaten, Euskaraz oparitu kanpaina…).

Kezkatzeko ondorioak (familia jarraipena):

1.- Ama-hizkuntza euskara dutenen portzentajea jaitsi egin da 1986-2021 urte bitartean Gernika-Lumon (% -10). Autonomia Elkartean beheranzko bidea dugu orokorrean eta inguruko udalerrietan areagotu egin da jaitsiera hori.

2.- Kezkagarriagoak dira etxean euskara erabiltzeari buruzko 2021eko datuak; 2016an %40 zen erabilera eta 2021ean %31, hamar puntuko jaitsiera (1991ean %41,07 eta 2011n %40,89; inguruko herrietan –Mungia, Bermeo- areagotu egin da jaitsiera hori). Ama hizkuntzaren jaitsiera bat dator etxean euskara gutxiago erabiltzearekin.

3.- Ama-hizkuntza gaztelania dutenen portzentajeak gora egin du (1991n %32,5, 2006an %34,20 eta 2011n %36,17). Erdara ez beste hizkuntzetako ama-hizkuntzak nabarmenago egin du gora: 2001ean %0,89 (137 biztanle) eta 2015ean %7,63 (1.258 biztanle). Beraz, azken hogei urteetan etorritako etorkinek biztanlerian duten pisua (%10 inguru) bat dator "euskara ama-hizkuntza" dutenen portzentajearen galerarekin.

4.- Biztanleriari dagokionean, Gernika-Lumoko biztanleria zahartzen ari da

- 0-19 urte bitartekoak: 1981ean %33,10, 2011an %17,88 -ia erdira jaitsi-, 2017an %19,49
- 20-64 urte bitartekoak: 1981ean %56,48, 2011an %61,14, eta 2017an %58
- 64 urte <: 1981ean %10,40, 2011an %20,97 eta 2017an %23,71

Azken urteetan jaiotza tasak zeozer gora egin badu, etorri berrien familiei eskerrak izan da. Beraz, euskararen ondorengoetaratzea ziurtatzeko familia esparruaren eragina gutxituz doa eta egoera hori orekatzeko, beste belaunaldi bat edo bi beharko dira.

5.- Haurren eta gazteen euskararen ezagutzak nabarmen gora egin duen arren, etxeko erabilerak behera egin du. Kezkatzekoa da eta arrazoietako bat etorkinen familiak aragotzearen eta haur gehiago izatearen ondorio argia da. Etorkinek biztanlerian gaur egun duten pisuarekin (%10) bat dator etxeko erabileraren jaitsierak (%10).

6.- Beldur gara **hizkuntza ohiturak finkatzeko erreferente bakartzat ez ote den ikastetxea hartuko,** familiaren bidea bigarren mailan geratuz. Beharrezkoa da, hargatik, euskararen transbertsalitatea baliatzea familietara beste bide batzuetatik ailegatzeko (udal saila desberdinak, anbulatorioa, guraso elkarteak, kirola,…), ez dagoelako erakunde propiorik horretarako.

7.- Gurasoen transmisioari dagokionean, LH-ko 1. zikloko datuak zerbait kezkatzekoak dira (Berritzeguneak 2010ean LH eta DBHkoen ikasleen gurasoen artean egindako inkestaren emaitzak). Multzo horretan, 2005-2006 ikasturteko datuekin konparatuz, 2009-2010 ikasturtean gora egin zuen jatorrizko hizkuntza erdara zuten ikasleen kopuruak eta jaitsi euskara zutenena. Ez daukagu datu berririk kontrastatzeko.

8.- Umeek gurasoekin euskaraz dihardute %65,6ko portzentajean **(**Berritzeguneak 2010ean LH eta DBHkoen ikasleen gurasoen artean egindako inkestaren emaitzak) baina **gurasoek etxean euren artean gutxiago, euskaraz %50,4koan** (helduek kalean euren artean, oraindik gutxiago; 2021eko neurketaren arabera %.....).

8.- Atzerritarren ia %80ak gaztelania du harremanetarako zubi hizkuntza (batzuk ama hizkuntza dutelako -%23 bat- eta gainerako %55ak erromantze hizkuntzatik datozelako –errumaniarrak-). Nahiz eta errumaniera guretzat arrotza izan, eurek erraz egiten dute errumanieratik gaztelaniarako bidea, euskararako bideari eutsi behar izanik barik. Gainerakoek (Senegal, Ukrania, Aljeria eta Sahara, …erromantze jatorririk ez dutenek) erreparo gutxiago diote euskara ikasteari, baina, tamalez, etorri berrien kopuru osoan gutxi dira.

II.1.2.- Euskalduntze-alfabetatze esparrua- Balorazioa:

	Euskaltegietako matrikula kopurua (Gernika-Lumo)			
Euskaltegia	**Mota**	**Sarea**	**Ikasleak 2011-2012**	**Ikasleak 2016-2017**
AITA VILLASANTE U.E.	Publikoa	Udal Euskal2	158	153
BUSTURIALDEKO AEK	Homologatua	AEK	137	84
GUZTIRA			295	237

1986-2022 epeko matrikulazioaren bilakaera mailaka (Iturria: HABE)

Euskalduntze-alfabetatzearen matrikulazioaren bilakaera, ikasmailaren arabera (Gernika-Lumo)						
	Euskalduntze-alfabetatzea					
IKASTURTEA	**GUZTIRA**	**101-106**	**107-109**	**110-112**	**Alfa**	**4. maila**
1986-87	**788**	50,89	18,40	0,00	30,71	---
1992-93	**479**	52,40	7,72	11,27	28,60	---
1999-00	**350**	33,71	14,57	5,14	46,57	---
2003-04	**310**	**25,16**	**9,35**	**10,32**	**55,16**	---
2005-06	**392**	29,85	9,18	22,70	38,27	---
2009-10	**365**	37,26	8,49	26,57	23,83	3,83
2012-13	**327**	33,89	10,96	20,27	13,29	7,64
2014-15	**268**	23,02	14,29	17,86	21,43	4,37
2016-17	**237**	**26,36**	**17,73**	**19,09**	**23,64**	**13,18**
	ABIAPUNTU TARTEAK					
		A0A0-B1A2	**B1B1-B2B1**	**B2B2-C1B2**	**-**	**C1C1-C2C1**
2017-18	**127**	**42,51**	**28,35**	**25,98**	**-**	**3,15**
2018-19	**144**	**41,67**	**26,39**	**25**		**6,94**
2019-20	**153**	**42,48**	**16,34**	**33,33**	**-**	**7,84**
2020-21	**100**	**38**	**14**	**36**	**-**	**12**
2021-22	**127**	**26**	**21,26**	**40,15**	**-**	**12,6**

Pozteko ondorioak(euskalduntze-alfabetatze esparrua):

1.- Plan estrategikoaren bitartez, indarrik gehien hartzen joan den esparruetako bat dugu alfabetatze-euskalduntzea (Plan Estrategikoan aintzat hartutako aurrekontuari Udal Euskaltegiko aurrekontua gehitu behar zaio urterokoari. Esan behar da atal honetan kokatu izan dugula beti Berbalagun egitasmo potoloa, baina 2017an Berbalagun "zehar-lerroetako" esparrura pasatu zen osorik eta sendo darrai, erabileraren helburuarekin zuzen lotuta dagoelako.

2.- Esparru honetako betetze-maila ehunetik ehunekoa izan da (aurreikusitako ekintza guztiak gauzatu dira), euskalgintzako eragileekin (Udal Euskaltegia eta AEK euskaltegia) izandako elkarlana bitarteko.

3.- (24. Orrialdea) **Gernika-Lumoko euskaldungoa 2021ean %68,4a izanik, gehiengoa, %84a, alfabetatua da;** 1996an euskaldungoaren %67a zen alfabetatua; 2011ra arte mantendu egin zen portzentajea eta nabarmen gora 2011tik hona.

4.- (24. Orrialdea) **Ia eskaldunen portzentajea 2021ean %14,70a bada, hauetatik %54a alfabetatua da**; kontuan hartu behar da 2011tik 2016rako tartean gora egin zuela 12 puntu, baina azken bost urteetan behera egin du berriro 10 puntu. Horren arrazoia jakitea ez da erraza (etorkinak al dira pilatu ia euskaldunen atalean?).

5.- Udalerri mailan dauden **eragileen arteko koordinazioa egonkortzeari ekin zaio 2019-2023 urte bitartean.** Aipagarria ohiko foroa: Berbalagun egitasmorako Talde Eragilea (2004tik bizirik). Partaideak: Udal Euskaltegia, Gernikako AEK, Busturialdean Euskaraz Bizi, Euskara Zerbitzua –teknikaria eta zinegotzia-).

6.- (32. Orrialdea) Euskaltegiek eskaintzen dituzten **moduloak, ordutegiak eta herritarren eskaerak uztartzeko ahaleginak egin eta lorpenak izan dira.** Egia esan, horren konponbidea ez dago euskaltegien eskuetan, HABErenean baizik, eta 2016-2017 ikasturtean onartuak izan ziren modulo bereziak.

7.- (32. Orrialdea) Euskaltegietako matrikulazio orokorra punturik baxuenean egon arren, **mantendu egiten da alfabetatzearen indarra** (C1/EGA, Institutuko ikasleen prestakuntza) **eta C2 mailarako (euskara teknikoa) eskaerak areagotu dira.** Agian, lan-mundura sartzeko (Administrazioa?) goi mailako tituludunen prestakuntza dago bitartean eta, jokabide hau, Euskararen kalitatearen mesederako da.

8.- (23. Orrialdea) **Bai 2001eko zein 2011ko datuen arabera, euskal hiztunen banaketa auzoka nahiko orekatua zen Gernika-Lumon**; euskaldunak auzo guztietan ziren nagusi (%60/%74 bitartekoa), desberdintasunak desberdintasun. Euskaldunen dentsitatea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta baldintza hobeak euskararen erabilpenerako; 2001eko mapa hori, gaur egun aldatu egin da (Lurgorriko eraldaketa erraldoia), baina, tamalez, Eustatek ez du jaso horrelako daturik egindako azken erroldatze lanetan. Dena dela, kale neurketaren erabilera datuek adierazten digute erdialdean jaitsi egin dela erabilera eta Lurgorrin, ostera, gora egin duela nabarmen (agian, euskaldunen dentsitatearen aldaketa bitarteko?).

Kezkatzeko ondorioak (euskalduntze-alfabetatze esparrua):

1.- Giza-talde bereziei begirako eskaintza indartu egin beharko litzateke gehiago oraindik, (merkataritza, ostalaritza, etorkinak,…); HABEk eskaintzen dituen moduluak egokitu beharra, guraso taldeen kasuan gertatu zen bezala.

2.- Ekiditu egin behar da Berbalagun egitasmoa heziketa prozesu batekin lotzeko pertzeptzioa sortzea, hau da, euskaltegien dinamikatik kanpora atera behar da. Berbalagun heziketa ez formalarekin lotzeko, berbalagunkideen jarduerak gizarteko egoera arruntetan txertatu behar dira. Irizpide horri begira eratzen da Berbalagun proiektuaren ekintza planteamendua, baina, esan behar da, planteatutako dinamika ikasturtekoa dela eta arriskua daukagula heziketa formalarekin lotzeko.

3.-1999tik-2017ra bitartean matrikulazioak izandako beheranzko joera eten bakoa izan da; 2017tik aurrera esan daiteke neurriratu egin dela euskaltegien eskaintza eta kopurua mantendu egiten da gora-behera batzuekin. Horrekin bat, alfabetatzerako matrikulazioa beherantza joan da eten barik 1986tik 2017ra, nahiz eta azken urteetan esan daiteke multzo horretan (B2-C1) pilatu direla aspalditik euskalduntze prozesuan ari direnak.

4.- Alkfabetatzerako eskaerak gutxitu diren arren, **ezin da pentsatu alfabetatze beharrizanik ez dagoenik**, kontuan hartzen badugu Gernika-Lumoko biztanleria zahartzen doala eta heldu eta adinekoen artean (50/55 urtetik gorako euskaldunak) dagoela euskaldungoaren gehiengoa. Honen aurrean, **beste estrategia batzuk landu beharra dago eta** BERBALAGUN egitasmoa oso egokia da helduen erabileran eta trebakuntzan eragiteko.

5.- Euskalduntze-alfabetatze esparrurako ekintzak, irakaskuntza/heziketa formaletik kanpokoak esan nahi da, sendotu beharra daukagu eta diru gehiago bideratu beharko da horretarako (Berbalagun?).

6.- Ia euskaldunetatik %46a da alfabetatu bakoa. Hor dagoen zulorari arreta eskaini behar zaii, ia euskaldunen multzoan eragin eta alfabetatu beharra dago, euskaldunen otzaran pilatzeko.

II.1.3.- Irakaskuntza esparrua - Balorazioa

Matrikulazioaren bilakaera Gernika-Lumon (1984-2020)

IKASTURTEA	Eskol OHO (A)	BBB UBI (A)	Lanb. Hez. (A)	Esk. OHO (B)	BBB UBI (B)	Lanb. Hez. (B)	Esk. OHO (D)	BBB UBI (D)	Lanb. Hez. (D)	GUZTIRA EREDUKA		
										(A)	(B)	(D)
84 / 85 G. A.	829	866	360	897	-	-	1758	216	-	%46	%18	%40
	Eskol OHO (A)	BBB UBI (A)	LH IEE (A)	Esk. OHO (B)	BBB UBI (B)	LH IEE (B)	Esk. OHO (D)	BBB UBI (D)	LH IEE (D)			
88 / 89	126	687	270	883	35	61	1987	454	31	%24	%21	%55
91 / 92	-	440	252	666	96	30	1908	626	159	%17	%19	%64
	Haur, Lehen Hezk. (A)	BBB UBI DBH (A)	LH IEE Modu(A)	Haur, Lehen Hezk (B)	BBB UBI DBH (B)	LH IEE Modu (B)	Haur, Lehen Hezk.. (D)	BBB UBI DBH (D)	LH IEE Modu (D)			
96 / 97	-	310	-	365	154	-	1366	911	222	%9	%16	%75
97 / 98	-	174	189	230	176	-	1349	1150	160	%10,5	%11,8	%77,5
99 / 00	-	113	86	200	147	-	1408	1214	50	%6,1	%10,7	%83
2001/2002	-	-	64	134	112	-	1581	698	618	%1,9	%7,6	%90,3
2007/2008	-	-	21	57	90	-	1820	789	630	%0,62	%4,31	%95,07
2010/2011	-	-	18	-	83	-	2245	1270	-	%0,50	%2,29	%97,21
2011/2012	-	-	11	-	76	-	2314	1270	-	%0,30	%2,07	%97,63
2012/2013	-	-	11	-	77	-	2370	1341	-	%0,29	%2.02	%97,69
2017-2018	-	-	-	-	36	-	2475	1517	-	%0	%0,81	%99,19
2018-2019	-	-	-	-	37	-	2479	1650	-	%0	%0,88	%99,12
2019-2020	-	-	-	-	33	-	2479	1633	-	%0	%0,79	%99,21
2021-2022					10		2167	1747	-	%0	%0,25	%99,74

D ereduaren goranzko joera etenik bakoa izan da 1984tik ona eta gaur egungo ikaslegoaren % 99,74a dabil eredu horretan, ikasle etorkinen matrikulazioa azken sei urteetan nabarmena izan den arren. Horrek esan nahi du udalerriko hezkuntza-sistemak apostua egin duela etorkinak D ereduan integratzeko, arazoak arazo eta horrek dakarren lan zamari aurre eginda.

Aipatzekoa da daukagun **kezka bat. "Maumeko" eskola alternatiboaren kasu berezia**, nahiz eta masiboa izan ez momentuz. Heziketa formaletik kanpo dago, ez dauka hizkuntza eredua finkatuta eta ikasleak erabakitzen du zein hizkuntzatzan hezitu. Hizkunta irizpideak soberan?



2003tik 2021era ikasle etorkinen matrikula kopurua ia laukoiztu egin da eta matrikula kopurua orokorrak ere gora egin du (ikasle etorkinak 300 bat gehiago eta bertoko jatorrikoak beste 200 bat). Esan behar da matrikula kopuru orokorra jaitsi egin dela 2020-2021 ikasturtean eta joera hori areagotu egingo dela hurrengo urteetan.



- Ikasle etorkinen matrikulak, Gernika-Lumon eta 2012-2013 ikasturtean, %61,51 zentro kontzertatuetan eta %38,49 zentro publikoetan; 2020-2021 ikasturtean %61,32 kontzertatuetan eta gainerakoak publikoetan. Bere horretan mantendu dira portzentajeak.

- Mertzede Ikastetxea da etorkinak pilatuta dauden ikastetxea. Urteak pasatu ahala pilaketa horri galga jarri zaiola esan dezakegu, baina ez guk nahi beste; 2003an ikasle etorkinen %50,5a Mertzede ikastetxean zegoen eta 2020-2021ikasturtean portzentajea %40,96an dago.

ZENTROETARAKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA (NORMALKUNTZA PLANETARAKO ETA ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETARAKO) – PROGRAMA KOPURUAREN BILAKAERA

EKINTZA MOTA	PROGR. KOP. 2011-2012	PROGR. KOP 2014-2015	PROGR. KOP 2016-2017	PROGR. KOP 2019-2020	PROGR. KOP. 2021-2022
Familia transmisioan eragiteko egitasmoak	12	11	10	14	5
Irakurzaletasuna	24	27	26	23	23
Euskara Zine Aretoetara	7	7	6	5	3
Normalkuntza planak martxan jartzeko eta daudenetan garatzeko	17	20	21	21	52
Etorkinen seme-alabei zuzendutakoa	8	4	3	2	4
Barru/kanp. Komunikazioan euskararen erabilera areagotzeko ekintzak	4	6	5	5	6
GUZTIRA	**72**	**75**	**71**	**70**	**93**

- Irakaskuntza zentroetako Normalkuntza Planak eta Udalaren Plan Estrategikoa uztartzearen adierazgarri goiko taula. Normalizaziorako diru laguntza deialdiaren arabera urte bakoitzean irakaskuntza zentroetan garatu izan diren programa kopuruak azaltzen ditu; 2020an normalkuntzarako diru-laguntza deialdira egokitu zen eskolan kanpokoarena, biak bateratu egin ziren.

- Banatu den kopuruaren bilakaera: 2007-2010 urte bitartean 25.000 euro urtero eta gero gutxituz joan da; 2017an 18.000 euro aurreikusi ziren. Normalkuntzarako beste 15.000 euro erabiltzen izan dira urtero.

- Gero, 2020an deialdi biak (normalkuntzarako eta eskolaz kanpokorako) bateratu zirenetik, 45.000 euroko deialdia luzatzen da.

EUSKARAREN ERABILERA ERDIGUNEAN HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA



ERABILERA IKASTETXEETAN HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA



Iturria: Soziolinguistika Klusterra

- Dakusagunez, **euskararen erabilerak nabarmen egiten du gora haurrak eta nagusiak nahasian ari direnean, euren artean** (bai erdiguneko kaleetan -%60,3- zein ikastetxeetan -%62,1-).

- Egindako neurketa desberdinetan (2006, 2011, 2016, 2021) berdin gertatu da, baina gauza pare bat argitu behar:
  1.- **Haurrak bakarrik daudenean azken bost urteetako datuak positiboak dira** (ikastetxean haurrak bakarrik 3 puntu gora eta kalean 6 puntu gora). Baina, beti bezala, kezkatzekoa da ikastetxetik kalerako erabileran dagoen beherakada hain handia.
  2.- **Haurren presentzian nagusiak euren artean bakarrik ari direnean, panorama kezkagarria**: jaitsiera konstantea da 2011tik 2021era (kalean zerbait gehiago duela bost urte baino, 4 puntu gora %32,3; baina ikastetxean ia 8 puntu behera, %34,9).

Pozteko ondorioak(irakaskuntza esparrua):

1.- Esparru hauxe zen **euskararen normalizazioaren ikuspuntutik garatuen genuena** 2003/2008 urteetako Plan Estrategikoa prestatzerakoan eta, gure ustez, emaitzarik onenak izan dituena egindako inbertsioarekin; hurrengo Plan Estrategikoetan neurriratu egin zen, beste esparru batzuetako lehentasunei aurre egin ahal izateko (familia esparrua eta lan-mundua, batik bat), baina azkenekoan bueltatu egin gara hezkuntzan somatu diren beharrizan berrien arabera.

2.- **Udalerriko zentro guztiek hartzen dute parte Udal Eskola Kontseiluan**, gehi Barrutia ikastetxeak eta Barrutialde Institutuak, Arratzuko udalerrian kokaturik egon arren bertoko ikasleak doazelako euretara. Guztiek dute Normalkuntza Plana.

3.- Betetze-mailari dagokionean, aurreikusitako ekintzak ia denak burutu izan dira, esparru honetan bizi-bizirik dagoen bilgunea/koordinazio-gunearen egonkortasunari eskerrak (Udal Eskola Kontseilua), nahiz eta pandemia sasoiak mugatu gaituen guztiz.

4.- Aztertu beharreko gaiaren arabera, **gainerako agenteek ere hartzen dute parte** (inmigraziorako teknikaria, berritzeguneko teknikariak, udal euskaltegia, AEK euskaltegia) Udal Eskola Kontseiluan modu iraunkorrean.

5.- Zentro bakoitzaren normalkuntza beharrizanak desberdinak izan arren, **guztien artean eskolaz-kanpoko egitarau komun bat mantendu da**, horretan ekiteko hizkuntza irizpide bateratuekin jokatu ahal izanik.

6.- Ezagutzari eta erabilerari dagokionean, familia esparrua aztertzeko arestian azaldutako grafikoak kontuan (ikusi Berritzegunearen azterlanak), **irakaskuntza esparrua da euskaldunena** eta erabilerari dagokionean ere arnasgunetzat daukagu (askoz gehiago erabiltzen dute haurrek eta gurasoek euskara ikastetxe inguruan kalean baino). Hori guztia ikastetxe inguruan erabilera aldetik beherakada nabarmena izan den arren.

7.- Udalerrian D eredua da nagusi eta goranzko joera etenik bakoa izan da 1984tik hona, ikasle etorkinen matrikulazioaren pisua areagotu egin den arren azken hamalau urteetan. Azpimarratzekoa da Mertzede ikastetxearen ahalegina, normalizaziorako inplikazioa eta martxan jarritako baliabideak, eta lortutako emaitzak.

8.- Familia esparrua lantzeko aukera eman digu irakaskuntzakoak. Normalkuntza Planetan 2010etik hona diruz lagundutako egitasmoak horren seinale; 2019-2023 epeko Plan Estragegikoarekin ere familia esparrurako egitasmo puntualak abian jartzeko aukera izan dugu (HIK HASI aldizkariaren harpidetza lehenengoz matrikulatzen diren ikasleen gurasoentzat,…).

Kezkatzeko ondorioak(irakaskuntza esparrua):

1.- Hezkuntzako baliabide murrizketak arazoak sor ditzake ikasle etorkinen integraziorako. Irakaskuntzako agenteen aparteko esfortzua dago bitartean eta krisiak murrizketak ekarri ditu (normalkuntzarako arduradunen ordu kopurua murriztea, laguntzarako irakasleak eta euren orduak murriztea,…).

2.- Kezkatzekoa da Mertzede ikastetxean ikasle etorkinen pilaketa mantentzea. Hezkuntza Sailak zeukan protokoloa nahiko ez eta 2005ean Udal Eskola Kontseilua bihurtu genuen foro etorkinen matrikulaziorako ahozko konpromisoak hartzearren. Ikasle etorkinen %50,5a zegoen Mertzede ikastetxean; 2021ean Mertzede ikastetxean dago ikasle etorkinen %40,96a.

3.- Ikasle etorkinen kopurua bikoiztu egin da azken lau urteotan eta, bertoko jaiotza tasa zerbait igo den arren, ikasle kopuru orokorrak gora egin du ikasle etorkinen kopuruak gora egin duen neurrian. Normalizatuen jotzen dugun esparruan**,** ikasle etorkinen matrikulazioak ekarri du azken hamaika urteetako matrikula igoera "D" ereduan eta horrek aparteko lana dakar hezkuntza sistemarako, distortsioak ekiditzeko.

4.- Zentro kontzertatuetan zailago egiten zaie erakunde publikoei ekitea. Beste eskualde batzuetako joeraren kontra, Gernika-Lumon zentro kontzertatuetan daude pilatuta ikasle etorkinak (mantendu egin da %61eko portzentajea, bai 2003an zein 2021ean, baina egia esan zentro kontzertatuen arteko banaketa orekatu da zerbait).

5.- **Haurren presentzian nagusiak euren artean bakarrik ari direnean, panorama kezkagarria**: jaitsiera konstantea da 2011tik 2021era (kalean zerbait gehiago duela bost urte baino, 4 puntu gora %32,3; baina ikastetxean ia 8 puntu behera, %34,9). Ikastetxeen inguruko euskararen erabilera jaitsi bada, helduen erabileraren jaitsieragatik da batik bat. Beraz, gurasoengan gehiago eragin beharra dago.

II.2.- Bigarren helburu estrategikoa: EUSKARAREN ERABILERA

ADIERAZLEAK





GERNIKA-LUMON ERABILERA OROKORRA ZONALDEKA

IBILBIDEA	2001eko erabilera	2006ko erabilera	2011ko erabilera	2016ko erabilera	2021 erabilera
1. Erdialdea	% 57,2	% 52,5	%47,2	%39,9	%42,8
2. Lurgorri	% 51,6	% 54,3	%57,3	%43,3	%46,1
3. Errenteria/Lorategieta	% 43	% 44,8	%37,4	%37,0	%39,4
HERRIAN	**% 52,6**	**% 55,2**	**%52,0**	**%49,4**	**%44,8**
4. Seber Altube ikastola	% 84,1	% 77,3	%68,0	%74,2	%50,1
5. Merkatu plaza - Institutua-...	% 60,5	% 66,2	%51,6	%42,5	%43,2
6. Allende Salazar ikastetxea	% 65	% 53	%62,9	%69,0	%58,1
IKASTETXE INGURUETAN	**% 68,5**	**% 65,8**	**%59,5**	**%61,8**	**%50,3**

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

- Gernika-Lumon euskararen **erabilera orokorrak bilakaera positiboa izan du** 1989-2021 bitartean,10 puntu gora, baina **2006tik 2021era beheranzko joera** eten bakoa izan da eta behera egin du 12 puntu.

- **Erdiguneko erabilera 2001etik 2021era jaitsi egin da 10 puntu,** nahiz eta azken lau urteetan gora egin duen 2 puntu.

- **Ikastetxeetako erabileraren jaitsiera** da nabarmenena 2011etik 2021era, 18 puntu behera.

- **"Beste hizkuntzak":** euskara edo gaztelera ez diren beste hizkuntza batzuk entzuteko fenomenoa nabarmendu da azken urteetan: 2006an %1,78a, 2011n %5,2, 2016koan %3,3 eta 2021en %4,4.

- **Erdialdean, Lurgorrin eta Errenteria/Lorategietan azken bost urteetan erabilera igo egin da 3 puntu** eta beheranzko joera eten egin da. Gehien erabiltzen den eremua Lurgorri da (%46,1, besteetan baino 4/9 puntu gehiago).

- Emaitzok orientagarriak izanik, kontuan hartu behar da Lurgorriko etxadietan kokatu diren familiak bikote gazteenak direla eta haurrak ere bertan pilatu direla. **Logikoa da Lurgorrin entzun izatea euskara gehiago**, haurrak eta gazteak/gazte helduak proportzioan gehiago direlako.

- Neurketa guztietan, **erdiguneko kaleetan behatutako erabileratik ikastetxe inguruetan behatutakora alde nabarmena dago**: 2011n 10 puntuko aldea, 2016an 21 puntukoa eta **2021ean 7 puntukoa (azken hau kezkatzekoa**; ikastetxe inguruan beherakada ikaragarria eta kalean zerbait gora, ia 3 puntu).



Iturria: Soziolinguistika Klusterra

- **Belaunaldi gazteenak dira, 1989-2011 urte bitartean erabileran hazkunderik altuena bizi izan dutenak**: gazteen erabilera 45 puntu areagotu da, eta haurrek, berriz, 26 puntu gora egin dute erabileran. **Baina kezkatzekoa da gazteen eta haurren erabilerak behera** egin izatea 2011tik 2021era, haurrena 8 puntu behera eta gazteena 9 puntu behera.

- **Helduen erabilera**, oro har, 4 **puntu igo** da aztertutako 32 urteko epean; 1989tik 2001era bilakaera positiboa (8 puntu gora) eta 2001etik 2021era behera 7 puntu.

- **Adinekoetan**, berriz, **gutxika beheranzko** joera dago erabileran eten barik: 22 puntu.

ERABILERA ERDIGUNEAN HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA



ERABILERA IKASTETXEETAN HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA



- Dakusagunez, **erabilerak nabarmen egiten du gora haurrak eta nagusiak nahasian ari direnean, euren artean** (bai erdiguneko kaleetan -%60,3- zein ikastetxeetan -%62,1-). Baina haurren presentzia soilak ez du eragiten helduen erabileran, elkarrizketan haurrekin parte hartzeak baino.

- Egindako neurketa desberdinetan (2006, 2011, 2016, 2021) berdin gertatu da, baina gauza pare bat argitu behar:
  1.- **Haurrak bakarrik daudenean azken bost urteetako datuak positiboak dira** (ikastetxean haurrak bakarrik 3 puntu gora eta kalean 6 puntu gora). Baina kezkatzekoa da ikastetxetik kalerako erabileran dagoen beherakada hain handia.
  2.- **Haurren presentzian nagusiak euren artean ari direnean, panorama kezkagarria**: jaitsiera konstantea da 2011tik ona (kalean zerbait gehiago duela bost urte baino, 4 puntu gora %32,3; baina ikastetxean ia 8 puntu behera, %34,9).





- Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, Gernika-Lumon euskaldunen portzentajea %68,30ekoa da eta erabilera orokorra %44,8koa; Bermeon euskaldunen portzentajea %71,55ekoa da eta kaleko erabilera %29,4koa.

- Espero daitekeen erabilera teorikoari (euskaldunen dentsitatearen arabera espero daitekeena) bagagozkio, Gernika-Lumon erabilera erreala (%44,8) erabilera teorikoaren (%38,4 inguru) gainetik dago. Bermeon, ostera, kasu kuriosoa, erabilera erreala (%29,4) erabilera teorikoa (%45,2 inguru) baino askoz ere beherago dago.

II.2.1.- Administrazioa – Balorazioa:

Atal honetako indizea:

1.- HIZKUNTZA ESKAKIZUNEI buruzko taula orokorra eta bilakaera (urteroko jarraipena)
2.- ITZULPEN LANAREN BOLUMENA (urteroko jarraipena)
3.- INKESTA LANGILEEI (2022ko maiatza/ekaina bitartean egindakoa 96 langileri); "udala+erakundeak" (I. eranskina) kontuan hartuta:
4.- INKESTA LANGILEEI, BAINA BEREIZTUTA udala eta erakunde bakoitza:
5.- UDAL ERREGISTROAN EGINDAKO DATU BILKETA (2022ko otsaila eta martxoa):
6.- INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK

1.- HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

LANPOSTU FINKOEN KOPURUA: 155

DERRIGORTASUN DATA DUTEN LANPOSTUAK: 141 (155 ken 14: 8 TGA /HNT+itzult+ trebatz +Eusk. Dinam. + 4euskara irakasle/ eta 6 lanpostu derrigortasun bakoak)

2016ko DERRIGORTASUN INDIZEAREN (%76) ARABERAKO DERRIGORTASUN KOPURUA: 113 (beraz, gainditu egin da legez bete behar den kopurua, gehiago baitira dutenak: 141)

HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN EGOERA DERRIGORTASUN GUZTIAK KONTUAN HARTUTA (Lanpostu finkoak):

DERRIG. HE	GUZTIRA (1)	EGIAZTAT. (2)	EZ EGIAZT (3)	LANP.HUTSAK (4)	SALBUET ADINAGA	-1 (5)	-2	-3
1.HE	10	9	0	1	0	0		
2.HE	67	56	1	9	0	1		
3.HE	53	39	1	11	0	2		
4.HE	11	4	0	6	0	1		
GUZT	141	108	2	27	0	4		

(1) Derrigortasun kopuruak eta derrigortasun indize orokorra (155 lanpostutik, derrigorrezko HE dutenen portzentajea: %90,96 /141 lanpostu). Gainerako 14ak: TGA-dunak 8 (kalkulu honetarako kanpoan utzi behar direnak) eta 6 derrigortasunik ez dutenak.
(2) EGIAZTATUAK.- Lanpostuari dagokion HE bete duten langileen kopurua (141etik 109 langile, finkoak eta interinoak barru): %76,59.

(3) EZ EGIAZTATUAK.- Lanpostuari dagokion HE bete ez duten langileen kopurua 2 (ezer ez dutenak bete): %1,41.
(4) HUTSIK dauden lanpostuak (27), kasu horietan interinorik ere ez dagoelako lanpostua betetzeko: %19,14.
(5) (-1) Dagokien HE baino bat beheragoko HE bete duten langileen kopurua (4): %2,83.
(6) Azkenik, dagokien HE baino bat gehiagokoa lortuta dutenak 38 dira (%26,95)



	1999	2001	2003	2005	2007	2009	2011	2014	2015	2017	2020	2022
Egiaztatuak	29	39	47	57	63	77	78	97	99	107	114	108
Ez Egiaztatuta	9	13	11	9	9	9	6	6	7	3	2	2
Lanpostu hutsak	4	6	8	14	12	5	6	12	10	11	13	27
Salb. Adina	7	7	5	3	1	1	1	0	0	0	0	0
Dagokion HE baino -1	10	12	11	9	9	9	10	12	11	9	5	4
GUZTIRA HE duten lanpostuak	**59**	**77**	**83**	**93**	**94**	**101**	**101**	**127**	**127**	**130**	**134**	**141**

2.- ITZULPEN LANAREN BOLUMENA – BILAKAERA (2008-2022)

Jarraian dagoen koadroan, itzulpen-lan bolumenaren bilakaera islatzen da (megabytes kopuruak adierazten dira):

Saila / Urtea	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2018	2019	2020	2021	2022
Alkatetza	10,2	4,94	2,58	1,12	0,893	0,782	0,443	0	0	0	0	0	0	0
B. Teknikoa	0	0	0	0	0	0	0	0,439	0	0	0	0	0	0
Dekretuak	0,953	4,65	6,81	5,86	6,92	4,55	3,28	0,762	0	0	0	0	0	0
Ekonomia	8,92	2,76	1,29	0,284	1,57	0,784	0,333	0	0	0	0	0	0	1,06
Estatistika-Erregistroa	0,842	0,422	0,190	0,950	0,270	0,985	0,103	0	0	0	0	0	0	0
Hirigintza	186	117	30	26,9	33,3	26,0	26,4	18,4	7,00	0,364	3,56	1,95	4,27	0,708…
Idazkaritza	74,1	71,1	53,6	24,4	17,3	20,9	15,9	12,5	1,62	0,144	0,420	0,16	1,82	0,361…
Ingurumena	3,14	20,0	0,850	49	2,24	1,7	0,102	0,79	0	0	0	0	0	0
Kultura/Kultur Etxea	2,83	3,15	8,19	9,76	5,96	3,50	5,87	9,92	1,58	1,81	6,58	11,7	6,21	0,142…
Lanbide	0	0	0	0	0,599	0,026	0,141	0,580	0	0	0	0	0	0
Udaltzaingoa	0	0	2,59	5,66	0,422	0,197	0,208	0,262	0	0	0	0	0	0
Zerbitzu Orokorrak	39,4	26,7	122	14,9	4,30	15,1	10,9	7,70	0	0,107	0,282	0,104	0,104	0,25
Prentsa bulegoa	---	---	---	---	---	---	---	5,45	5,66	3,23	1,84	1,27	0,377	0,101…
GUZTIRA	326,385	250,722	228,1	138,834	73,774	96,524	63,68	52,159	15,86	5,655	12,4	15,08	12,781	

Ondorio nagusiak (itzulpen lana):

- Aurreko urteetakoa berretsi behar dugu: **itzulpenen bolumenak beherantz egin du oro har** (ereduak erabiltzen dira, itzuli beharrekoa askoz ere laburragoa da, langile batzuek itzultzaile neuronala erabiltzen dute, askotan itzulita dagoena orraztea baino ez da falta,…).
- **Beste bariable bat da langileen gaitasuna.** Funtsezko lanpostu batzuetan erreleboak izan dira eta lanpostuarekin jabetu diren teknikari berriek soberako gaitasuna dute: langileriako arduraduna, ingurumenerako teknikaria, idazkaritzako administraria (itzultzaile-administraria), Kultur Etxeko zuzendaria, Arkitektoa, Kontuhartzailea, Idazkaria, ekonomia saileko teknikaria.
- **Laupabost udal saila/zerbitzu dira itzulpen beharrizana dutena bereziki** (Hirigintza, Idazkaritza –Erreklamazioen azpisaila-, Kultur Etxea, Prentsa Bulegoa, Merkataritza bulegoa).
- **Kultur Etxean izan den igoeraren arrazoia**: bai euskaratik gaztelaniarako zein alderantzizko (euskaratik gaztelaniarakoak agertzen dira) itzulpenak gehitu egin dira 2020-2021ean; Kultur Etxean epe horretan Kultura Plana eratzearen ondorioz, txosten mardulak erabili izan dira bilkuretan, baina prozesu hori bukatu denez, lehengo kopuruetara bueltatu da.
- **Ikusten denez, Kirol Erakundea eta Lanbide Ekimenak Zentroa ez dira zerrendan agertzen**, euskararen tratamendurako gaitasuna daukatelakoan…, baina ikusi beharko euren funtzionamenduari buruzko indizeek zer dioten.
- **Egoera honek bidea eman digu lehen ezin egin genituen itzulpen mardulak egin ahal izateko** (kontrataziorako pleguak, testu luzeak, ordenantzak,…), batzuetan kanpoko enpresaren bati bidaltzen zitzaizkionak.

Bestalde, atzera pausuak ekarri behar hona (itzulpen lana):

- **Euskara hutsean funtzionatzen izan duen Gazteen Informazio Bulegoak proposamenak erdaratu beharra**, arloko arduradun politikoaren gaitasun falta aitzakia. Irtenbidea: Euskara Planak esaten duena, Euskara Zerbitzuak itzuliko du gaztelaniara langileak euskaraz ekoizten duena.
- **Osoko Bilkuretako ahozko erabileraren estimazioa egiteko akta literaletara (eta akta itzulpenetara) jotzen izan da,** baina orain bideo-aktak egiten dira eta itzulpen beharrizana ere asko gutxitu da. Horrek asko murriztu du itzulpen bolumena. Ahozko erabilerari dagokionean, estimazioa grabazioetatik egin behar eta ikusten da moteldu egin dela euskararen erabilera proportzionalki
- **Prentsa bulegoa**: kaleratzen den guztia itzuli egin behar da (2019, 2020 eta 2021ean gutxitu egin da itzulpen kopurua, pandemia bitarteko), eta batzuetan hizkuntza irizpideen tratamenduarekin ere arazoak sortu dira (kexak sare sozialetan gaztelania erabiltzeagatik edota Euskara Zerbitzuaren eskutik pasatu gabeko euskarazko testu traketsak agertzen zirelako….). Horiek guztiak konpontzeko koordinazioa landu da prentsa arduradunarekin.

3.- INKESTA LANGILEEI ("udala+erakundeak" eta "udala bakarrik")

2001etik honako datuen bilakaerari, 2022an 96 langileri egindako inkesta bidez lortutakoak gehitu zaizkio (bereiztu egin dira "Udala bakarrik" (54 inkesta) eta "UDALA+ERAKUNDEAK" (96 inkesta) interesgarria delako aldea ikustea::

Urtea		Lanurratsak Euskaraz		Lanurratsak Eleberaz		Lanurratsak gazteleraz	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop	%
2001 (aztertutako lanurratsak 767)		120	15,60	23	2,90	624	81,30
2008 (aztertutako lanurratsak 1053)		224	21,27	38	3,66	791	75,12
		Erdarara itzuli				Euskarara itzuli	
		71	6,74			431	40,93
2012 (aztertutako lanurratsak 725)		232	32	106	19,62	387	53,38
		Erdarara itzuli				Euskarara itzuli	
		36	4,96			187	25,79
2018an (inkesta bidezko datu bilketa)		102 inkesta	48,5	102 inkesta	20,1	102 inkesta	30,9
2022an (inkesta bidezko datu bilketa)	Udala bakarrik	54 inkesta	43,7	54 inkesta	28,7	54 inkesta	27,6
	Udala + Erakundeak	96 inkesta	52,0	96 inkesta	27,2	96 inkesta	20,8

- Euskarazko lanurratsetan eta sortze lanean izan da igoerarik nabarmenena (2001ean %15,60 eta 2022an %52).
- 2022ko datuetan euskarazko sortze lanean desberdindu egin behar da "udala bakarrik" (%43,7) eta "udala+erakundeak" (%52). Aztertzekoa da desberdintasun horren arrazoia.
- Eleberazko lanurratsetan ere gorakada nabarmena, %2,90etik %27/28ra, baina kontuan hartu behar da elebikoaren atzean dagoen sortze-hizkuntza gaztelera dela normalean.
- Gaztelerazko lanurratsen kopuruak, ostera, beherantz egin dun nabarmen (2001ean %81,30 eta 2022an %20,8).

Idatzizko lanurratsen hizkuntza – Barne harremanak eta kanpo harremanak

2001 urtea 765 lanurrats guztira	**BARNE HARREMANAK (331 lanurrats)**						**KANPO HARREMANAK (434 lanurrats)**					
	Euskaraz		**Eleberaz**		**Gazteleraz**		**Euskaraz**		**Eleberaz**		**Gazteleraz**	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop**	**%**
	59	17,82	6	1,81	266	80,30	61	14,05	17	3,90	356	82,00

2008 urtea 1053 lanurrats guztira	**BARNE HARREMANAK (472 lanurrats)**						**KANPO HARREMANAK (581 lanurrats)**					
	Euskaraz		**Eleberaz**		**Gazteleraz**		**Euskaraz**		**Eleberaz**		**Gazteleraz**	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop**	**%**
	139	29,45	20	4,24	313	66,31	85	14,63	18	3,10	478	82,27

2012 urtea 725 lanurrats guztira	**BARNE HARREMANAK (355 lanurrats)**						**KANPO HARREMANAK (370 lanurrats)**					
	Euskaraz		**Eleberaz**		**Gazteleraz**		**Euskaraz**		**Eleberaz**		**Gazteleraz**	
	Kop.	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop.**	**%**	**Kop**	**%**
	142	40,00	47	13,23	166	46,76	89	24,05	60	16,21	221	59,73

2018 urtea Langileei inkesta	**BARNE HARREMANAK**			**KANPO HARREMANAK**		
	Euskaraz	**Eleberaz**	**Gazteleraz**	**Euskaraz**	**Eleberaz**	**Gazteleraz**
	% 54,3	**% 26,7**	**%18,9**	**%31 herritarrei** **%46 erakundeei**	**%56 herritarrei** **%53 erakundeei**	**%12 herritarrei** **%1,0 erakundeei**

2022 urtea Langileei inkesta	**BARNE HARREMANAK**			**KANPO HARREMANAK**		
	Euskaraz	**Eleberaz**	**Gazteleraz**	**Euskaraz**	**Eleberaz**	**Gazteleraz**
Udala bakarrik 54 inkesta	**%50,8**	**%31,6**	**%17,6**	**%10 h-ei**	**%84 h-ei**	**%6 h-ei**
				%32 erak-ei	**%61 h-ei**	**%7 erak-ei**
Udala + Erak. 96 inkesta	**%60,9**	**%21,5**	**%17,6**	**%29 h-ei**	**%67 h-ei**	**%4 h-ei**
				%47 erak-ei	**%40 erak-ei**	**%13 erak-ei**

- **Barne harremanetako euskarazko produkzioaren goranzko joera eten bakoa izan da** eta hementxe dago euskarazko produkzioaren sorleku nagusia (2001ean %17,82 eta 2022an %60,9), baina erreparatu egin behar diogu 2022an egindako inkesta bidezko galdetegiaren emaitzari; %60,9 hori udala+erakundeen arteko datua da eta "udala bakarrik" hartzen badugu %50,8a, apalagoa. Gaztelerazko produkzioan portzentaje berbera da "udala bakarrik" zein udala+erakundeak" kontuan hartuta.

- **Kanpo harremanetako lanurratsetan, euskara hutsezko produkzioaren portzentaje orokorra gorantza joan da 2001etik (%14,05) 2018ra (%31 herritarrei begirakoa eta %46 erkaundeei begirakoa), baina 2022ko datu bilketan gauza kezkagarria aurkitu dugu:**

- Herritarrei begirako idatzizko kanpo harremanak euskaraz (udala+erakundeak) 2018an %31 eta 2022an %29, ez dago alderik apenas.
- 2022an beste maila bateko desberdintasun bat ere hartu dugu kontuan, hau da, herritarrei begirako kanpo harremanak euskaraz "udala bakarrik" denean %10a eta "udala+erakundeak" denean %29. Kezkatzekoa da alde horrekin topo egitea 2022an.
- Erakundeekiko euskarazko kanpo harremanak euskaraz (udala+erakundeak) 2018an %46 eta 2022an %47. Parean hemen ere.
- Baina erakundeekiko euskarazko kanpo harremanak euskaraz 2022ko datu bilketan "udala bakarrik" denean %32 eta "udala+erakundeak" denean %47. Hemen ere alde nabarmena. Kezkatzekoa eta aztertzekoa.

4.- INKESTA LANGILEEI – (konparaketa: “udala+erak”, “udala bakarrik” eta erakundeak)

GALDERAK	Udala+erak	Udala bak.	Kult.Etxea	Musika Esk.	Kirol Patronat.	Lanb. Ekim,
2.1.1. Herritarrek erakundera bidalitako idatziak (euskaraz)	%42,1	%34,7 Kontr. 2.1.2	%72,1	%40,6	%62,5	%42,5
2.1.2. Erakundeak herritarrei bidalitako idatzizko komunikazio ofizialak (euskaraz)	%28,9	%10,3 Kontr. 2.1.1	%62,4	%48,6	%53,8	%20
2.1.4. Herritarrek euskaraz egindako eskaerei erantzuteko erabilitako hizkuntza (euskaraz)	%54,3	%50,7	%96	%41,5	%75	%40
2.2.5. Elkarrizketa osotasunean hartuta, tfno bidezko herritarrekiko komunikazioa (euskaraz)	%68	%66,3	%80	%72,9	%77,8	%45,7
2.2.6. Elkarrizketa osotasunean hartuta, herritarrekiko aurrez aurreko komunikazioa (euskaraz)	%67,8	%67,0	%80	%68,1	%73,3	%51,4
3.1.1. Lan bileretako dokumentu idatziak (euskaraz)	%62,6	%54,2	%95	%71,9	%84,3	%38,6
3.1.2. Barruko idatzi ofizialak/prozedurak (euskaraz)	%60,9	%50,8	%96,7	%83,8	%100 kontr. 6.1.1.	%25
3.1.3. Langile arteko idatzizko komunikazio ez formala (euskaraz)	%72,7	%69,8	%81,4	%58,2	%95,7	%79,3
3.2.2. Langile arte ahozko komunikazioa (euskaraz)	%69,1	%68,0	%77,1	%56,3	%84,2	%72,9
3.2.3. Langile eta ordezkari politikoen arteko ahozko komunikazioa (euskaraz)	%84,5	%82,3	%82,5	%82,5	%98,6	%88
5.1.1. Beste erakundeetatik jasotako idatziak (euskaraz)	%18,8	%14,4	%38	%21,3	%37,5	%11,4
5.1.3. Erakundeak EAEko beste erakundeetara idatziak (euskaraz)	%47,3	%32,2	%76	%40 Kontr. 6.1.1.	%98	%32
5.2.3. Erakundeak hornitzaileei bidalitako idatziak (euskaraz)	%28,4	%27,5	%75	%35	%73,3	%9
5.2.5. Erakundeak hornitzaileekin ahoz (euskaraz)	%56,7	%54,6	%84	%45,7	%60,9	%55,7 kontr. 5.2.3.
6.1.1. Idatzizko lanaren sortze hizkuntza (euskaraz)	%52,0	%43,7	%82,9	%70,3	%39,3 Kontr. 3.1.2.	%44,3
6.2.2. Erakundearen hizkuntza irizpideen ezagutza	%63,5	%63	%57,1	%62,5	%75,0	%57,1
6.7.1. Erakundean euskararen erabileraren bilakaera (iritzi positiboa)	%64,4	%67,3 (+ ahoz eta idatziz %28)	%85,7 (+ ahoz eta idatziz %42,9)	%42,9	%80 (+ ahoz eta idatziz %41,7)	%42,9 (+ ahoz eta idatziz %14,3)

Berdez, indarguneak / **Gorriz** , ahuleziak (kasu batzuetan kontraesana azaltzen da bi galderetako emaitzetan)

KIROL PATRONATUKO DATU BILKETA (2015 / 2022).- 20 espediente mota aztertu ziren 2015ean / 2022an inkesta langileei:

LANJARDUNAK (20)	LAN URRATSAK (104)			BARNE HARREMANAK (31) Barruko idatzi ofizialak			KANPO HARREMANAK (73) Herritarrei bidalitako notif.		
	Eusk	Biak	Gazt.	Eusk	Biak	Gazt	Eusk	Biak	Gazt
2015 urtea	64	38	2	30	0	1	34	38	1
	%61,53	%36,53	%1,92	%96,77	0	%3,22	%46,77	%52,05	%1,37
2022 urtea (inkesta)	---	---	---	%100	0	0	%53,8	%45,8	%0,4

KULTUR ETXEKO DATU BILKETA (2016 / 2022).- 15 espediente mota aztertu ziren 20216an / 2022an inkesta langileei:

LANJARDUNAK (15)	LAN URRATSAK (107)			BARNE HARREMANAK (28) Barruko idatzi ofizialak			KANPO HARREMANAK (79) Herritarrei bidalitako notif.		
	Eusk	Biak	Gazt.	Eusk	Biak	Gazt	Eusk	Biak	Gazt
2016 urtea	95	9	3	24	3	1	71	6	2
	%88,79	%8,41	%2,80	%85,71	%10,71	%3,58	%89,87	%7,60	%2,53
2022 urtea (inkesta)	---	---	---	%96,7	0	%3,3	%62,4	%37	%0,6

5.- UDAL ERREGISTROAN EGINDAKO DATU BILKETA (2022ko otsaila eta martxoa)

Datu orokorrak (sarrerak eta irteerak)

	Euskaraz				Elebitan				Gaztelaniaz			
	2012	2013	2015	2022	2012	2013	2015	2022	2012	2013	2015	2022
Erregistroko sarrerak %	17,88	21,04	19,93	**30,00**	16,77	22,07	23,04	**11,00**	65,35	56,26	57,03	59,00
Erregistroko irteerak %	19,71	16,60	23,64	**2,55**	78,84	81,00	75,79	**96,10**	1,45	2,40	0,54	1,35

Datuen irakurketa (erregistroko datu orokorren bilakaera):

- Euskarazko idatzizko sarrerak gora eten barik 2012tik (%17,88) 2022ra (%30; elebitan beheranzko joera eta gaztelaniazkoetan ez dago horrenbeste alderik (2012an %65 eta 2022an %59).

- Irteerei dagokienean, euskara hutsezkoak ia desagertu egin dira; tamalgarria eta Udal sailetan zerbait txarto egiten delako adierazgarria (2015ean %23,64 euskara hutsezkoak eta 2022an %2,55); elebitakoa da nagusi, nabarmen, eta euskara hutsezkoak galdu duena elebitakoan pilatu da; gaztelania hutsezkoa ia testimoniala da gaur egun.

Erregistroko sarrerak guztira (hizkuntzaren arabera)

	Euskaraz orok.	Elebitan orok.	Gaztelaniaz orok.
2015eko lagina (768)	**%19,93** / 153	**%23,04** / 177	**%57,03** /438
2022ko lagina (395)	**%30** / 119	**%11** / 44	**%59** / 232

Erregistroko sarrerak herritarrenak (hizkuntzaren arabera)

	Euskaraz	Elebitan	Gaztelaniaz
2015eko lagina (550)	%24,7 / 136	%4,36 / 24	%70,90 / 390
2022ko lagina (340)	**%33,82 / 115**	**%2,94 / 10**	**%63,23 / 215**

Erregistroko sarrerak beste erakundeenak (hizkuntzaren arabera)

	Euskaraz	Elebitan	Gaztelaniaz
2015eko lagina (218)	**%7,79** / 17	**%72,20** / 153	**%20,01** / 48
2022ko lagina (55)	**%7,27** / 4	**%62,00 / 34**	**%30,73 / 17**

Datuen irakurketa (erregistroko sarrerak):

- Sarreretan herritarrenak (esparru pribatua) dira nagusi, bai 2015ean eta baita 2022an ere, baina alde hori areagotu egin da epe horretan; herritarren euskarazko sarreretan igoera egon da 2015etik (%19,93) 2022ra (%30); susmoa daukagu horren arrazoietako bat HAZ-eko langileen eragina dela, eskabideak betetzerakoan euskarazko eredua betetzen laguntzen dietelako herritarrei.
- Herritarren sarreretan gaztelaniazkoa da nagusi 2022an ere (%63,23), baina 2015etik ona euskarazko herritarren sarrera kopuruak gora egin du 10 puntu.
- Erakundeen sarrera gehienak elebitan datoz, baina 2022an 10 puntuko jaitsiera egon da (%72tik %62ra) eta gaztelaniazko sarreretan pilatu dira 10 puntu horiek; euskara hutsezko kopurua mantendu egiten da (%7). Beraz, erakundeen sarrera aldetik atzera egin da.

Erregistroko irteerak guztira (hizkuntzaren arabera)

	Euskaraz	Elebitan	Gaztelaniaz
2015eko lagina (537)	**%23,64** / 127	**%75,79** / 407	**%0,54** / 3
2022ko lagina (667)	**%2,55 / 17**	**%96,10 / 641**	**%1,35 / 9**

Erregistroko irteerak herritarrei (hizkuntzaren arabera)

	Euskaraz	Elebitan	Gaztelaniaz
2015eko lagina (337)	**%10,09** / 34	**%89,31** / 301	**%0,60** / 2
2022ko lagina (534)	**%1,68 / 9**	**%97,38 / 520**	**%0,94 / 5**

Erregistroko irteerak erakundeei (hizkuntzaren arabera)

	Euskaraz	Elebitan	Gaztelaniaz
2015eko lagina (200)	**%46,5** / 93	**%53,00** / 106	**%0,5** / 1
2022ko lagina (133)	**%6,00 / 8**	**%91,00 / 121**	**%3,00 / 4**

Datuen irakurketa (erregistroko irteerak):

- Irteeretako datu orokorrei dagokienean, euskara hutsezkoak ia desagertu egin dira; kezkagarria benetan, eta Udal sailetan zerbait txarto egiten delako adierazgarria (2015ean %23,64 euskara hutsezkoak eta 2022an %2,55)
- 2022ko datu orokorretan elebitakoa da nagusi irteeretan (%96,10); euskara hutsezkoak galdu duena elebitakoan pilatu da; gaztelaniazkoa ia testimoniala da gaur egun (%1,35).
- Erregistroaren arabera, herritarrei bidalitako jakinerazpenak %1,68 dira euskara hutsezkoak; kontrajarrita dago herritarrek egiten dituzten euskara hutsezko sarrerekin (%33,82); 2015eko datuak orekatuagoak dira, herritarren sarrerak %24,7 eta herritarrei bidalitako irteerak %10,09.
- Erakundeei bidalitako irteeretan ere datu kezkagarria, euskara hutsezkoetan 2015eko %46,5etik 2022ko %6ra jaitsi delako. Euskarazkoan galdutakoa elebitakoan pilatu da (%91).

6.- INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK

Indaguneak / Pozteko ondorioak (Administrazioa):

1.- Datuen eta indizeen bilakaera positibo orokorraren arabera, Plangintzaldi bakoitzean onartu den Administrazioko Erabilera Plana tresna eragingarria bilakatu da Administrazio barruko euskararen erabilpena areagotzeko.

2.- **Diru laguntzetarako udal ordenantza orokorra moldatu zuen Udalak 2012an, Euskara Zerbitzuaren ekarpenak txertatuz**. Euskararen babes juridikorako tresnak ere hor kokatzea ezinbesteko jo dugu. Administrazioko Erabilera Planaren ildotik doan gauza bat dugu hau.

3.- Langileen hizkuntza gaitasunaren egoera ona; Hizkuntza eskakizunei dagokienean, betetze mailak bilakaera positiboa izan du, 1999an 59 derrigortasundunak eta 29 egiaztatuak (%49,15); 2022an 137 derrigortasundunak eta 114 egiaztatuak (%83,21). Kontuan hartu behar da hutsik dauden lanpostuak 16 direla.

4.- Herritarrekin telefonoz zein aurrez aurreko komunikaziorako hizkuntza; datu orokorra %68 eta nahiko parekoa da udaletxean zein erakundeetan, kaleko erabilera baino (%44,….) nahiko sendoagoa. Lanbide Ekimenak zentroan dago datu nahiko apalagoa (%45/50)

5.- Herritarrek erregistroan euskaraz aurkeztutako idatzien bilakaera positiboa; 2015ean %24,7 eta 2022an %33,82. Portzentaje horrek gora egiten du inkesta bidez egindako datu bilketan, "udala+erakundeak" kontuan hartuz gero %42,1 delako.

6.- Herritarrei euskaraz bidalitako jakinarazpenen bilakaera positiboa udal erakundeetan; 2001ean euskarazko kanpo harremanak (udala+erakundeak) %14 eta 2022an %29. Esan behar da 2018-2022 tartean zeozer gutxitu dela portzentaje hori (%32tik %29ra) eta ahulezietan ikusiko dugu zergatia (udaletxean euskara hutsezko jakinarazpenetan izandako jaitsiera negargarria).

7.- EAE-ko erakundeetara bidalitako euskarazko idatzi kopuruaren bilakaera positiboa, Kultur Etxean (%76) eta Kiroldegian (%98); ia erdira jaisten da besteetan (udala, Musika Eskola, Lanbide Ekimenak).

8.- Barne harremanetan euskaraz idatziz sortutako lanaren bilakaera positiboa, 2011n %17,8 eta 2022an "udala+erakundeak" %60,8; 2018tik 2022ra ere 6 puntu egin du gora. "Udala bakarrik" denean jasotako datuetan euskarazko idatzizko sortze lana apalagoa da, %50,8.

9.- Barne harremanetan langileen arteko ahozko (%69,1) eta idatzizko (%72,7) euskarazko erabileraren datu positiboa. Datu hau nahiko parekatua da udalean zein erakunde guztietan. Apalagoa Musika eskolan (%56 / %58).

10.- Udal administrazioan euskararen erabilerak duen bilakaeraren balorazio positiboa langileen aldetik (%64,4 positiboa eta %32,2 ez positiboa ez negatiboa). Negatibotzat jotzen du %3,3ak.

11.- Erakundez erakunde egindako hausnarketan, Kultur Etxea Fundazioa eta Kirol Patronatua dira aurreratuen daudenak euskararen normalizazioari dagokionean. Rankinean hurrengo egongo lirateke "Udala bakarrik" eta Musika Eskola, nahiko parekatuta, eta azken Lanbide Ekimenak zentroa. Hori guztia, langileei egindako inkestaren emaitzen arabera.

12.- Itzulpen lanaren bolumena murriztu izana, udal saila askotan euskaraz gehiago sortzen delako (Ingurumena, Langileria, Estatistika, Ekonomia, Udaltzaingoa, Kultur Etxea,…; itzultzaile neuronala erabiltzeagatik,…). Euskaratik gaztelaniarako itzulpenak gero eta gehiago eta orrazketak ere bai.

Ahuleziak / Kezkatzekoak (Administrazioa)

1.- Nahiz eta Administrazioko erabilera plana Udalbatzak onartua izan, betearazteko indarrik ez dago. Arlo askotan erabakitako hizkuntza irizpideak (sortze lana, kontratazioak,….) bete daitezen protokolo falta,.. Euskara Plana betetzen den kontrolatzea Talde Eragileari legokioke, baina betearazteko babesik ez dauka.

2.- Barruko euskarazko produkzioa apalagoa da "udala bakarrik" denean (%50,8) eta kezkatzekoa Lanbide Ekimenak zentroan (%25, aztertzekoa). Gainerako erakundeetan, ostera, indargunetzat jo dezakegu: Kultur Etxean %96,7 / Musika Eskolan %83,8 / Kirol Patronatuan %100 (aztertzekoa, zeren kontraesana dago Kirol Patronatuan, inkestako "6.1.1.- Idatzizko lanaren sortze hizkuntza (euskaraz)" galderaren emaitzak %39,3 ematen duelako….?).

3.- Erakundeetatik datozen idatzien sarrera gehienak elebitan datoz, baina 2022an 10 puntuko jaitsiera egon da (%72tik %62ra) eta gaztelaniazko sarreretan pilatu dira 10 puntu horiek; euskara hutsezko kopurua mantendu egiten da (%7). Beraz, erakundeen sarrera aldetik atzera egin da.

4.- Udaletxeko erregistroko irteerei dagokienean, euskara hutsezkoak ia desagertu egin dira; tamalgarria eta Udal sailetan zerbait txarto egiten delako adierazgarria (2015ean %23,64 euskara hutsezkoak eta 2022an %2,55); elebitakoa da nagusi, nabarmen, eta euskara hutsezkoak galdu duena elebitakoan pilatu da.

5.- Aurreko puntuarekin lotuta, "herritarrek euskaraz egindako eskaerei erantzuteko erabilitako hizkuntza (euskara)"-ren datua kezkagarria da Udalaren kasuan (%50,7), Musika Eskolan (%41,5) eta Lanbide Ekimenak Zentroan (40). Datu positiboa, ostera, Kultur Etxean (%96) eta Kirol Patronatuan (%75). Kontuan hartuta %100 izan beharko litzatekeela hizkuntza irizpideen arabera.

6.- Udaletxeko erregistroaren arabera, herritarrei bidalitako jakinerazpenak %1,68 dira euskara hutsezkoak; kontrajarrita dago herritarrek egiten dituzten euskara hutsezko sarrerekin udaletxean (%34,7); 2015eko datuak orekatuagoak ziren, herritarren sarrerak %24,7 eta herritarrei bidalitako irteerak %10,09. Zer gertatu da atal honetan?

7.- Erakundeei bidalitako irteeretan ere datu kezkagarria, euskara hutsezkoetan 2015eko %46,5etik 2022ko %6ra jaitsi delako. Euskarazkoan galdutakoa elebitakoan pilatu da (%91)…

II.2.2.- Lan mundua – Balorazioa:

ADIERAZLEAK

Hitzarmengintza kanpaina (agente kopurua)

Urtea	Denda kop	Enpresa kop	Elkarte kop	guztira
1993	58	-	-	58
1997	68	-	-	68
2001	84	7	-	91
2004	100	22	37	159
2008	113	34	57	204
2011	137	48	58	243
2014	161	47	59	267
2015	171	52	59	282
2016	184	51	59	294
2017	204	51	60	315
2022	179	56	59	294

Kanpainako diru eta giza baliabideen bilakaera

Urtea	Diru kop	Arloak	Giza-baliabideak
1993	4.000 €	Merkataritza	- Artez (Tekn. + monitorea) - Udaleko Eusk. Teknikaria HNT1
2001	12.000 €	Merka+enpresa	“ “
2004	35.600 €	Merka+enpr+elkart	“ “
2006	45.000 €	“ “	- Artez (Tekn. + monitorea) - Udaleko Eusk. Teknikaria - Udaleko euskara dinamizatz.
2012	71.392 €	“ “	“ “
2016	72.927 €	“ “	“ “
2022	48.577 €	“ “	- Artez (kontratu erdia) - Udaleko Euskara dinamizatz. - Udaleko Eusk. Teknikaria

- Datu hauetan, 2004tik aurrera elkarteena ere agertzen da, kanpaina berean hiru atal daudelako (merkataritza, enpresak, elkarteak). Atal bakoitzak tratamendu berezia du, baina ez dago bereiztuta diru baliabideen kontua zenbat den atal bakoitzerako. Nabaria da 2004 urteko urratsa, hiru atalak kanpainan sartzeaz gain hitzarmenkide berri asko sartu zirelako kanpainan eta aurrekontuak dexente gora egin zuelako.

- Giza baliabideen zutabean, berdez azpimarratuta dago Euskara Dinamizatzailearen kontratazioari dagokion urtea (2004-2006), hitzarmengintza dinamizatzeko helburuarekin kontratatua.

- 2022an aurekontuan beherakada, Artez enpresaren kontratua erdira jaitsi zelako.

Merkataritza eta enpresetan euskararen erabileraren bilakaera (hitzarmenkideena)

Atala	Neurketak egindako urteetako erabileraren portzentajeak								
	1993 urtea Dendak 58	**2001 urtea** Dendak 84 eta enpresak 7	**2004 urtea** Dendak 100 eta enpresak 22	**2006 urtea** Dendak 117 eta enpresak 30	**2008 urtea** Dendak 120 eta enpresak 36	**2011 urtea** Dendak 137 eta enpresak 48	**2014 urtea** Dendak 161 eta enpresak 47	**2016 urtea** Dendak 184 enpresak 51	**2022 urtea Dendak 179 eta enpresak 56**
Merkataritzan euskaraz	%38,35	%71	%53,99	%66,23	%67,40	%66,92	%66,04	%68,66	%66,80
Enpresetan euskaraz	--			%49,88	%58,69	%55,76	%57,03	%62,26	%65,54

Kontuan hartu behar da erabileraren datuak hitzarmenkideei doazkiela eta erabileraren portzentajea aldatuz doala kide kopurua aldatzen den neurrian. Kide berriak kanpainan sartzeak, erabileraren portzentajea jaistea dakar.

16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna, jarduera-adarren arabera Gernika-Lumon (2001-2016)

	Guztira	**Nekazaritza eta arrantza**	**Industria**	**Eraikuntza**	**Zerbitzuak (merk/ostal/zerbitzuak…)**
2001 urtea	6.065	116 (%1,91)	1.955 (%32,23)	415 (%6,84)	3.579 (%59,01)
2006 urtea	6.832	74 (%1,08)	2.185 (%31,98)	535 (%7,83)	4.038 (%59,10)
2011 urtea	6.602	74 (%1,08)	1.571 (%23,79)	455 (%6,89)	4.516 (%68,40)
2016 urtea					

Beste adierazle batzuk

	2005	**2007**	**2008**	**2010**	**2011**	**2014**	**2016**	**2022**
Dendak + enpresak hitzarmenkide (portzentajea)		%11,36	%11,14	%12,92	%14,46	%14,46	%18,08	%18
Erabilera plana duten enpresa kopurua	1	3	4	7	7	4	4	2
Euskara hutsean + eleberaz aurkeztutako fakturak udaletxean	-	%20	-	-	%34,72 %20 eusk / %14,72 eleb.	-	-	-
Egindako aldaketak + errotuluak + itzulpenak (merkataritzan)	-		156	401	677	630	313	290
Egindako aldaketak + errotuluak + itzulpenak (enpresetan)			67	92	40	91	75	100.000 hitz
Eskainitako euskarri informatikoak (enpresak + merkat)	3	3	3	3	3	3	3	3

Pozteko ondorioak (enpresa mundua):

1.- 1993az geroztiko **merkataritza kanpaina Plan Estrategikoetan txertatzea oso erraza izan da** eta esperientzia estimagarria honako esparrua garatzeko orduan (merkataritza kanpainaren dinamika baliatu dugu enpresen eta elkarteen atalak abian jarri eta moldatzeko).

2.- 2002tik 2016ra bitartean eten barik goranzko bidea izan du hitzarmenkide kopuruak, merkataritzan gehiago enpresetan baino (ostalaritzako esparrua astindu zelako, behar bada). Baina eten bat izan da azken bost urteetan; segurutik andemiaren eraginagatik.

3.- Esparru honetako betetze-maila ia ehunetik ehunekoa izan da (aurreikusitako ekintza guztiak gauzatu ahal izan dira neurri batean edo bestean).

4.- Enpresa munduan emaitza oso onak lortu dira eta merkataritzan baino azkarrago; 2001ean 7 enpresa, 2008an 34 eta 2021ean 56. Erabileran ere 2006tik 2021era bitartean enpresa-hitzarmenkideek gora egin dute 16 puntu (2006an %49,88 eta 2016n %65,54); kontuan hartzekoa da enpresa hitzarmenkideen kopurua urtetik urtera doala gora eta gutxi-asko sartzen diren enpresa berriek erabilera portzentajea jaitsi egiten dutela.

5.- Merkataritzan asko areagotu dira aldaketak; itzulpen eta material eskaera kopurua gorantza eta euskarri teknikorako gero eta demanda gehiago (tiketa emateko eta kontabilitaterako gailuen prgoramak euskaraz). Enpresen atalean, ostera, itzulpen/material eskaerak gutxitu egin dira, indar gehiago ematen zaiolako barruko erabilerari eta euskara planak edo mikroplanak finkatzerakoan langileriaren prestakuntzari.

6.- Hitzarmenkide diren merkataritzako agenteen eta enpresen euskara erabilera (%67/%66) nabarmen dago kaleko erabileraren gainetik (%44,8).

7.- Poztekoa da HPS-k eta BFA-k enpresetako euskara planak garatzeko azken urteetan indarrean jarritako diru laguntza bidea, LANHITZ programaren magalean, udalaren ekimenaren osagarri modura planteaturik (udalak helburu berberarekin ematen dituen diru laguntzak, HPS-k eta BFA-k emandakoan arabera esleitzen dira).

8.- Udalerri mailako merkatari elkartearekin elkarlana areagotzeko hitzarmena sinatu da. Horren arabera planteatu den dinamika gauzatuko den eta ondorioak izango dituen ikustekoa da.

9.- "Torrealdai aholkularitza" Hitzargune kanpainan sartu da, merkataritzan eta enpresa munduan eragin handiko agentea. Esparru horietan eragiteko guretzat lagungarria, seguru.

Kezkatzeko ondorioak (enpresa mundua)

1.-. Azken bost urteetan arlo sozioekonomikorako erabilitako aurrekontuak behera egin du (60. orrialdeko taula); aldiz, 2008-2013 epealdiko Plan Estrategikoa garatu ahala bikoiztu egin zen eta gastua mantendu 2014-2017 epekoan (70.000 €-tik gora).

2.- Merkataritzako erabilera (hitzarmenkideena) bere horretan dago 2006tik hona (%66/%68), eta enpresetako erabilera (hitzarmenkideena) ia parekatu egin da (%65,5). Agian, kale erabileraren ondorioa izan daiteke (2021eko kale neurketan %44,8koa izan da kale erabilera) eta berau ere gorantza ez doan bitartean, merkataritzakoa ere geldirik dago.

3.- Adierazleetan ikusten denez, **kopuru osotik portzentaje txikia da hitzamenkide ditugunak (%18,08 enpresa eta merkatari)** nahiz eta eredugarri edo garrantzirik gehien dutenak kanpainan izan. Hutsunerik handiena profesionalen munduan daukagu.

4.- 2011n zazpi enpresa ziren Erabilera Plana onartu eta garatzeari ekiten ziotenak eta 2021ean hiru; beherakada, krisia eta pandemia bitarteko.

5.- Udalerriz gaindiko erakundeetan ezin eragin izana edo eragiteko arazoak (Merkatal ganbarak, enpresari elkarteak eta federakuntzak, enpresa matriz delakoaren menpe daudenak –aseguru etxeak, banketxeak, frankiziak-). Aldundiaren eta Jaurlaritzaren lidergoa beharrezkoa da honetan.

5.- Lan-munduan eragiteko udal eta goi erakundeen arteko koordinazioa landu barik dago. HPS-ren LANHITZ egitasmoa eta udal erakundeetan abian ditugun egitasmoen arteko uztarketa argia beharko litzateke, giza eta diru baliabideei etekin osoa ateratzeko.

6.- Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko 123/2008 Dekretua indargabetu egin zuen Jaurlaritzak. Horixe dugu oztoporik handiena kontsumitzaileen hizkuntza eskubideen izenean merkataritzan, ostalaritzan eta enpresen munduan eragin ahal izateko eta gutxieneko jokabide batzuk legez ziurtatzeko. Kontsumitzaileen eta erabiltzeen hizkuntza eskubideak errespetatzea, merkatarien eta enpresarien borondatearen kontua da gaur egun, zoritxarrez.

II.2.3.- Aisia – Balorazioa:

ADIERAZLEAK

Bi mila eta zortziko diagnostikoan esaten genuen aisiaren kontzeptu zabalago bati eutsi behar geniola, kultura, ongizate eta gaztedi arloko elkarteak honekin lotuz; kirol esparrukoak ere aintzat hartu ditugu konparaketa egiteko). Jarraiko datuak, hitzarmenkide diren elkarteei dagozkie:

Hitzarmenkide diren ELKARTE GUZTIAK (ezagutza eta erabileraren bilakaera)

	2001 urtea	2006 urtea	2008 urtea	2010 urtea	2012 urtea	2014	2016 urtea	2022 urtea
Ezagutza	%80	%82	%85	--	%82,33	---	--	---
Erabilera	%52,04	%62,58	%65,15	%64,05	%68,82 Barru %44,66 / Kanpo %65,00	%65,79	%66,59	%66,80

KULTUR/GAZTE ELKARTEAK ezagutza eta erabileraren bilakaera)

	2001 urtea	2006 urtea	2012 urtea	2014 urtea	2016 urtea	2022 urtea
Ezagutza	%86	%88	%91	---		
Erabilera	% 56,50	% 72,76	% 87,69 Barru %66 / Kanpo %91	%81,78	82,26	88,24

ONGIZATE ELKARTEAK (ezagutza eta erabileraren bilakaera)

	2001 urtea	2007 urtea	2012 urtea	2014 urtea	2016 urtea	2022 urtea
Ezagutza	---	---	%84			
Erabilera	---	---	% 55,73 Barru %26 / Kanpo %47	%51,24	51,24	52,54

KIROL ELKARTEAK (ezagutza eta erabileraren bilakaera)

	2001 urtea	2006 urtea	2012 urtea	2014 urtea	2016 urtea	2019 urtea	2022 urtea
Ezagutza	%78	%80	%79	---	----	---	---
Erabilera	% 44	% 56,50	%63,05 Barru %42 / Kanpo %57	%63,13 ----	%66,29 ----	%76,39 ---	%78,53 ---

Beste adierazle batzuk	2004 urtea	2005 urtea	2006 urtea	2007 urtea	2009 urtea	2011 urtea	2016 urtea	2022
Kultur elkarteak guztira / Hitzarmenkideak	32 / 18 %56,25	33 / 25 %75,75	34 / 26 %76,47	36 / 28 %77,77	34 / 26 %76,47	40 / 29 %72,50	40 / 29 %72,50	40/29 %72,50
Gazte elkarteak guztira / Hitzarmenkideak	4 / 4 %100	5 / 5 %100	5 / 5 %100	5 / 5 %100	5 / 5 %100	5 / 5 %100	4/4 %100	4/4 %100
Ongizate elkarteak guztira / Hitzarmenkideak	14 / 4 %28,57	15 / 6 %40,00	15 / 7 %46,66	15 / 9 %60,00	15 / 9 %60,00	15 / 9 %60,00	15 / 9 %60	15/9 %60
Itzulitako testuak: laburrak + luzeak **(elkarte guztiak)**	-	53	49	40	62	57	29	20.000 hitzetik gora

Gazteei begirako aisialdiko programak eta ekintzak	2004 urtea	2005 urtea	2006 urtea	2007 urtea	2008 urtea	2011 urtea	2014 urtea	2022 urtea
Gazte elkarteak: kopurua / hitzarmenkideak	5/5	5/5	5/5	5/5	5/5	4/4	4/4	4/4
Kale hezitzaileekin GAZTERREN egitasmoa lantzen duten gazteen kopurua	---	---	40	45 16 etork.	45 16 etork.	24 11 etork	26 10 etork	
Asteburuetako aisia (URE – hitzarmena): 8-12 urteko partaideen kopurua bataz beste	100	100	100	150	150	210	---	---
Gaztelekuko zapatuak (URE- hitzarmena): 13-16 urteko partaideen kopurua bataz beste	80	80	80	100	100	80/100	70/100	80/160
Udako kaleko kanpamenduak (Udan zer egin + URE): 8-12 urteko partaideen kopurua bataz beste	---	---	---	200	200	244	---	292

Pozteko ondorioak (aisia):

1.- Esparruko betetze maila %100koa izan da, esparruan diharduten eragile nagusien inplikazioagatik (Gaztelekua, Informazio bulegoa, gazte elkarteak –euskara hutsean dihardute-).

2.- Esparruan erabilitako aurrekontua laukoiztu egin zen 2003tik (16.000 € inguru) 2010era (65.000 €) bitartean eta hurrengo urteetan euskara arlotik aisialdiko esparruen eskuetata igaro dira (Gazteri arloa eta Informazio Bulegoa, Kultur Etxea –Gaztelekua-) abian jarritako egitasmoak (Gaztelekua eta gaztelekuko zapatuak, udalekuak,…).

3.- 2003ko Plan Estrategikoa eratzeko egin zen diagnostikoan, Gazte Elkarteen esparrua normalizatuenetako bat zela atera zitzaigun eta horri eusteko ahalegina egin da hurrengo Plan Estrategikoetan ere.

4.- 18-25 urte bitarteko gazteei begirako aisiaren egoera poztekoa da Astra proiektuaren norabidea ikusita. Lehenengo urratsetatik euskara hutsean garatu den proiektua izan da eta gazteen artean sortu den dinamika euskaraz funtzionatzekoa da.

6.- **Elkarteei (kultura, gaztedia, ongizatea eta kirol arloko elkarteei) zuzendutako hitzarmengintza egitasmoa oso eraginkorra suertatu da;** hitzarrmenkide ditugun elkarteetan euskararen erabilera orokorraren bilakaera oso positiboa dugu (2001ean %52,04 eta 2022an %66,80). **Kultur/gazte elkarteen erabilera da hasieratik goren dagoena eta hortxe mantentzen da (2022an %88,24**); kirol elkarteen erabilera beherago badago ere, gorakadarik nabarmenena izan du azken urteetan (gaur egun %78). Kasu bietan kale erabileraren (%44,8) gainetik daude.

7.- Euskarazko ikuskizunen kopuruak eta euretako ikusleen portzentajeak ikuskizun guztiekiko, gora egin dute (ikus 76. Orrialdea). Nahiz eta kultur ikuskizunetako euskarazko merkatua mugatua izan, eskertzekoa da programatzen denean euskarazkoaren aldeko apostua.

8.- Eliza dugu gune euskaldunenetako bat. Elizbarrutia bera, Karitas eta aisialdirako Parrokiako Kosnoaga elkartea hitzarmenkide ditugu. Beraz, normalizazioari begirako lana betetzea ez da diru kontua erlijioaren esparruan, hizkuntza irizpideak bere jardueran aintzat hartzen direlako.

9.- Belaunaldi gazteenak dira 1989-2016 urte bitartean kale erabileran hazkunderik altuena bizi izan zutenak: gazteen erabilera 45 puntu areagotu zen epe horretan; haurren erabilerak, ostera, epe horretan 27,2 puntu egin zuen gora. Baina, badaude kezkatzeko arrazoiak ere, hurrengo atalean ikusiko dugun bezela.

10.- Euskararen **erabilerak nabarmen egiten du gora haurrak mintzakide direnean** (bai erdiguneko kaleetan zein ikastetxeetan). Akatsa dago helduen erabileran, euren artean ari direnean nahiz eta haurren presentzian egon.

Kezkatzeko ondorioak (aisia)

1.- Hirugarren plan estrategikorako (2014-2017) aisiaren esparrua modu orokorragoan planteatu nahi genuen, aurreko plangintzaldirako asmoari eutsiz, baina %100ean ezin. Udal sailen arteko banaketa oztopo da (gaztedi sailak atal batzuk ditu Kultur Etxearen menpe eta beste batzuk Udaletxean).

2.- Gaztediaren arloan eragiteko Gazte Plana ezinbesteko tresna litzateke, baina ez dago bizirik. Horrekin lotuta, Euskara Zerbitzutik 2008an ere aipatzen zen **Gaztedirako giza baliabide eskasia; gaur egun egoera berdinean gaude (2007/2008an** kontrataturiko dinamizatzailearen esperientzia hain positiboa - lanaldi erdia Gaztedirako eta beste erdia Jai arlorako- eten egin zen 2011n).

3.- Gernika-Lumon **euskararen erabilera orokorrak** bilakaera positiboa izan duen arren **(1**989-2016 bitartean: 17 puntu gora) **bi mila eta seitik hona beheranzko joera eten bakoa** izan da eta behera egin du 12 puntu; haurren erabilerak behera (2006tik 2022ra ia 15 puntu); gazteena ere behera (2001tik hona behera 9 puntu); helduena mantendu eta adinekoena behera.

4.- Kezkagarriagoa gazteei begirakoa: 1989tik (%9,5) 2016ra (%54,2) 45 puntu gora egin bazuen gazteen erabilerak, 2016tik honako 9 puntuko beherakadak arduratzen gaitu.

5.- Elkarteei begirako "hitzargune" kanpaina orokorrean positiboa izan bada ere (2016an erabilera %66,59), **gizarte ongizate arloko elkarteen erabilera bereiztu eta askoz baxuagoa da (%52,54); are gehiago,** 2012an %55,73a zen eta behera egin du. Ezagutza ere baxuagoa da.

6.- Neurketa guztietan, erdiguneko kaleetan behatutako erabilera orokorra ikastetxe ingurukoa baino baxuagoa da nabarmen: 2011n 10 puntuko aldea, 2016an 21 puntukoa eta 2021ean 7 puntuko aldea (2021eko neurketan ikastetxeetan asko jaitsi da eta erdigunean zerbait igo; horrek aldea murriztu egin du).

7.- Azpimarratu egin behar da 2016tik 2021era ikastetxeetako erabilera orokorra jaitsi egin dela **helduen erabilera ikastetxe inguruan asko jaitsi** delako. Haurrena igo egin da bai ikastetxe inguruan zein erdigunean.

8.- Nagusiak haurrik barik daudenean, erabilera jaitsi egiten da eta haurrak eta nagusiak nahasturik daudenekoetan ere bai. Argitu behar baita ere, haurren presentzia soilak ez duela eragiten helduen/adinekoen erabileran, elkarrizketan parte hartzeak baino. Beraz, familiarteko aisialdiari buelta bat emna beharko zaio.

II.2.4.- Kirola - Balorazioa

ADIERAZLEAK

Kontuan hartu behar da atal honetan gizarte mailako kirol esparruko hausnarketa egiten dela eta hortik kanpo dagoela Administrazioaren atalean Kirol Patronatuari buruz egin duguna (ikus 55. orrialdea).

Kirol elkarteen ezagutza eta erabileraren bilakaera (hitzarmenkideak)

	2001 urtea	2006 urtea	2012 urtea	2014 urtea	2016 urtea	2022
Ezagutza	%78	%80	%79	---	----	---
Erabilera	% 44	% 56,50	%63,05 Barru %42 / Kanpo %57	%63,13	%66,29	%78,53

- Azken bolada honetan, kirol mota bereziko elkarteak sortu dira, kirolkide gutxikoak; horrek, desoreka sortu du hitzarmenkide direnen portzentajean. Nahiz eta elkarterik garrantzitsuenak hitzarmenkide izan, buelta bat eman beharko zaio hitzarmenkide berriak egiteari kirol esparruan.

- 2006an hitzarmenkide ziren kirol elkarteen erabilera orokorra %56,50a bazen, 2022ra bitartean gora egin du 22 puntu (%66,29); aipagarria, erabilera horrek kaleko erabilera (%49,6) aise gainditzen du.

- Baina, barruko eta kanpoko harremanetarako erabilerak alderatuz, desoreka itzela agertzen zaigu: 2012ko neurketan kanporako erabilera %57 eta barrurakoa %42, askoz baxuagoa. Entrenatzaile eta kirolarien arteko hizkuntza ohituretan sumatzen genuen hutsunea kontuan hartuta, hurrengo urteetan kirol arloan bereziki eragitea erabaki zen (Eusliderrak Gernika Futbol taldean, erabilera areagotzeko tailer bereziak,…).

Urte osoko ikastaroen hizkuntza (2016/2017)

Iktaroen hizkuntza	2016/2017			2022-2023
	urte osoan	neguko ikastaroak	udako ikastaroak	Neguko eskaintza bakarrik
Gaztelaniaz	9 (%4)	9 (%5)	0 (%0)	2 (%1,5)
Ele bietan (*)	27 (%13)	24 (%14)	3 (%9)	10 (%2,2)
Euskaraz	167 (%82)	139 (%80)	28 (%90)	126 (%91,3)
Guztira	203	172	31	138

Ikastaroak euskaraz ematen dira gehienak: %91,3 (azken urte honetan neugko eskaintza egin da bakarrik).

(*) Ele bietan: oro har agindu orokorrak euskaraz. Gaztelaniaz galdetzen duenari gaztelaniaz erantzuten zaio eta azalpen zehatza eman behar bazaio, gaztelaniaz.

Begiraleen jatorria eta euskara gaitasuna 2017

Elkartea edo erakundea	begirale kopurua	euskaldunak
Arku Jaurtiketa	1	%100
Arkupe Pilota taldea	3	%100
Gernika FS	1	%100
Gernika Saskibaloi alkartea	8	%80
Gernika Sub Urpekaritza alkartea	8	%80
Judo-Karate alkartea	3	%100
Kosnoaga Igeriketa alkartea	4	%100
Lumo Kirol eskola	6	%100
Ogoñope Surf alkartea	4	%100
Udalaren Kirol Patronatua	9	%100
Xixili alkartea	11	%90

Hizkuntza erabilera elkarteka 2017

Elkartea edo erakundea	gaztelaniaz	ele bietan	euskaraz
Arku Jaurtiketa	%0	%0	%100
Arkupe Pilota taldea	%0	%0	%100
Gernika FS	%0	%0	%100
Gernika Saskibaloi alkartea	%0	%0	%100
Gernika Sub Urpekaritza alkartea	%33	%0	%66
Judo-Karate alkartea	%0	%25	%75
Kosnoaga Igeriketa elkartea	%0	%0	%100
Lumo Kirol eskola	%0	%0	%100
Ogoñope Surf alkartea	%0	%0	%100
Udalaren Kirol Patronatua	%0	%0	%100
Rugby eskola	%0	%0	%100
Xixili alkartea	%37	%54	%9

- Euskara gaitasunari dagokionean, Urpekaritza elkarteko eta Xixili elkarteko begiraleengan 2008an zegoen hutsunea zuzendu egin zen 2017an. Gaur egungo daturik ez daukagu. Begiraleak 68 baziren guztira, 3 ziren erdaldunak: 1 Xixili elkartekoa, 1 urpekaritzakoa eta beste bat Saskibaloikoa. Elkartekako erabilerari bagagozkio, Xixili elkartearen datuak ziren kezkagarriak.

- Kirol elkarterik garrantsitsuenak kontuan hartuta (beheko taula), Gernika Futbol Elkartea zen indizerik baxuena zeukana (%57,55) 2017an.

	Esku pilota	Saskibaloia	Rugbya	Igeriketa	Futbola
Baliabideak	12	15	62	100	16
Ezagutza	63	93	88	85	62
Kanpo erabilera	94	63	70	100	69
Barne erabilera	64	72	66	100	46
Motibazioa-komunizazioa	51	67	95	100	32
Corpus kalitatea	20	27	80	100	20
INDIZE OROKORRA	71,89	69,00	76,13	95,50	57,55

Pozteko ondorioak (kirola):

1.- Izan dugun lanik gogokoena Kirol Patronatuarekin elkarlan emankorrari eustea izan da, honek nahiko finkatuta dituelako hizkuntza irizpideak, bai barrurako (administrazio lanak, kontratazioak) zein kanporako (elkarteekiko harremanak, bazkideei arreta, herritarrekiko eskaintza). Hargatik, esparru honetarako erabilitako aurrekontua ez da aipagarria, kudeaketa izan delako lan nagusia kasu honetan. Betetze maila, ia %100koa izan da, planteatutako ekintza guztiak garatu ahal izan dira eta.

2.- Hitzarmengintza kanpainan kirol talde garrantzitsu eta indartsuenak ditugu sinatzaile (Gernika Futbol Elkartea, Racing Elkartea, Gernika Rugby Taldea, Gernika Saski-Baloi elkartea, Arkupe Pilota Taldea, Goi-zale elkartea). Aipagarria Futbol Elkartearekin izan diren aurrera pausuak.

3.- Kirol elkarteetako kideen ezagutza mantendu den arren, erabilera orokorrak gora egin du asko (2001ean %44 / 2016an %66,29 / 2022an %78,53), kaleko erabilera orokorraren (2021eko kale neurketan %44,8) gainetik.

4.- Kirol arloan kanpainak abian jartzeko bideak erraztuta daude, Kirol Patronatuak bilgunea daukalako kirol elkarteekin zerbait eratu behar denerako eta sarritan antolatzen dituelako kirol elkarteekin elkarlanean hainbat gauza.

5.- Kirol Patronatutik egiten den eskaintza udalerriaren egoera soziolinguistikoaren ildotik doa eta, ondorioz, normalizazioaren bideari darraio, euskararen erabilerari lehentasuna emanez (eredua: ikastaroen eta prezioen publizitaterako euskarria euskara hutsean dago eta atzealdean **hiztegi txiki bat darama ulermen arazoak dituenarentzat).**

6.- Bizkaiko Foru Aldundiak martxan dauka BIKEE programa (Bizkaian Kirola ere Euskaraz), kirol federazioekin lanean aritzeko eta kirol elkarte batzuetan esperientzia pilotuak gauzatzeko (gure udalerriko Saskibaloi Elkarte izan da aukeratutako bat). Gu zuzen-zuzen inplikatuta gaude Alkarbide (euskara zerbitzuen bilgunea) bitarteko.

7.- Gernika Rugby Taldea Soziolinguistika Klusterraren "Euskara kirolkide" egitasmoan partaide da, kirol klubak euskararen babesgune izateko azterlana. Euskal Autonomia Elkarte mailako proiektua da.

8.- Ikastetxeek eta kirol klubek udalerrian sinatutako akordioa, eskola-kirolean ikasleek jardun dezaten 12 urtera arte; ondorioa, eskola-kirola euskararen erabileraren babeserako gune izateko aukerak areagotzea, adin tarte garrantzitsu batera arte behintzat.

Kezkatzeko ondorioak (kirola):

1.- Kirol arloko goi erakundeetara jotzeko ahalmenik ez daukagu udal mailan eta udalerri mailako kirol elkarte askok goi erakunde horien araberako funtzionamendua dute (idatzi ereduak, batzarrak, ikastaroak, …). Ahalegin berezia egiten ari gara Alkarbidetik, Euskara Zerbitzuen Koordinakundetik, federazioetan eragiteko. BIKEE programaren helburua horixe da, baina guk nahi baino geldoago doa.

2.- Administrazioaren goi erakundeek ez dute betetzearazten Euskal Federazioen legea (urtarrilaren 31ko 16/2006 Legea) eta Federazioei diru-laguntzak eta baliabideak eskaintzerakoan hizkuntza irizpide zorrotzagoak erabili beharko lituzteke. Aipatu legeak, XIII. Tituluan, federazioen hizkuntza normalizaziorako aginduak ematen ditu eta lege-hauspenaren kasurako zigorrak ere ezartzen ditu. Hori guztia ez da aplikatzen. Ez da ahaztu behar kirol federazioak katalogatuta daudela sasi-publikotzat.

3.- Kirol elkarteen barruko erabilera (2012an %42) baxua zen ezagutzarekin alderatuta (%79). Halandaze, gehiago ekin behar diogu kirol elkarteen jardunean, hitzarmengintza kanpaina bitarteko.

5. Udalerri mailako elkarteen artean, arreta berezia eskaini behar zaio Gernika Futbol Elakrteari, erreferentea delako jende asko eta askorentzat eta bera da ezagutza zein erabilera aldetik makalen daukaguna.

6. Azken bolada honetan, kirol mota bereziko elkarteak sortu dira, kirolkide gutxikoak; horrek, desoreka sortu du kanpainako elkarte guztien portzentajeetan eta erabilera datuetan. Nahiz eta elkarterik garrantzitsuenak hitzarmenkide izan, buelta bat eman beharko zaio hitzarmenkide berriak egiteari kirol esparruan.

II.3.- Hirugarren helburu estrategikoa: EUSKARAREN ELIKADURA

Plan Estrategikoa onartu orduko emandako urratsak (1987-2002) (elikadura)

1.- 1987 urtea: Berritzegunearekin elkarlanean argitalpenak prestatzeari ekin zitzaion eta batzuk corpusarekin lotuta.
2.- 1991 urtea: Euskararen erabilpenerako Udal Ordenantza onartu zen eta bertan finkatu ziren diru laguntzak emateko eta lagundutako ekitaldi publikoetarako hizkuntza irizpideak.
3.- Betidanik jokatu da estu-estu Kultur Etxea Fundazioarekin, kultur programazioan euskarazko eskaintza orekatzea helburu.
4.- Hedabideei dagokienean, udalerri mailan euskarazko prentsa idatziaren faltaz, **Deiadar aldizkaria sortu zen 1990ean** udalaren ardurapean. Zortzi urtez jardun ondoren, Eutsi izena hartu zuen 1999an eta elkarte baten menpe aritu zen beste urte bat, kazetari faltagatik funtzionatzeari utzi zion arte.
5.- Publizitateari dagokionean, **1997an argitaratu genuen Merkataritza kanpainako berripaperaren 1. alea**, hitzarmenkideen "publizitatea" eginez, esparru honetan euskara erabiltzera motibatu nahian. Ordutik ona, urtero atera izan da bat gutxienez eta urte batzuetan bi ale.
6.- 2002 urtean Bagabiz aldizkaria enpresa gisa sortzeko asmoaren berri izan eta Euskara Arloak laguntzeko konpromisoa hartu zuen. Gaur egun, arazo batzuk bitarteko, ez dago indarrean laguntza hori.

2003-2008rako Plan Estrategikoaren magalean emandako pausu nagusiak (elikadura):

1.- Liburugintza esparruan hainbat eragilerekin aritu izan da Euskara Arloa 2003tik ona (EHU, Labayru, Gernikazarra,…)
2.- 2003ko uztailaren 23an Busturialdeko Irrati Telebista S.L.-ri esleitu zitzaion udal albisteen zabalkundea egiteko kontratua, euskararen erabilpenerako irizpide zehatzak finkatuz. Gaur egun 11telebistako kide dugu eta indarrean dago berekiko lotura.
3.- 2003tik aurrera, urtero argitaratzen izan den berripaperari "Geure berbie euskeraz" izena jarri eta urteko bi ale argitaratzeko erabakia hartu zen. Berripaperean hitzarmengintza hiru atalak lantzen dira gaur egun (merkataritza, enpresak, elkarteak).
4.- "Geure berbie euskeraz" hitzarmengintza egitasmoa elkarteen esparrura hedatu zen 2004tik aurrera, kultur elkarteak barru.
5.- 2007ko abenduan Busturialdeko Hitza egunkariari diru laguntza eskaintzeko hitzarmena sinatu zuen Udalak eta indarrean jarraitzen du lotura horrek.
6.- Corpusaren inguruan, udalerriko toponimia lanari eutsi zitzaion 2003an eta 2007an "toponimia mapa" argitaratu zen.

2008-2013rako Plan Estrategikoa oinarri izandako ebatzi eta urrats nagusiak (elikadura)

1.- Toponimia lana borobildu eta argitalpena prestatzeko, Euskaltzaindiarekin hitzarmena sinatu zen 2008an.
2.- Euskara arloko Web gunea moldatu eta martxan jarri zen 2010ean.
3.- Diru laguntzetarako udal ordenantza orokorra moldatu zuen Udalak 2012an eta Euskara Zerbitzuak bere ekarpenak egin zituen irizpideak eta arauak txertatzeko. Esan behar da onartuak izan zirela proposatutako guztiak.
4.- Toponimia datu-basea digitalizatu eta web gunean jarri zen 2012ko azaroan.
5.- HITZA-rekin beste lau urteetarako hitzarmena sinatu zen (2012-2015). Harpidetza sustatzeko kanpaina bereziak burutu izan dira urtero (2012koa Lurgorri inguruan burutu zen).
6.- Udalak BiskayTIK erakundearekin hitzarmena sinatu zuen 2010ean. Alkarbideko D ereduko lan-mahaiaren kezkak bultzatuta, ordutik elkarlanean aritu izan gara Aldundiarekin eta BiskayTIK erakundearekin, udalei eskaini zaizkien hainbat abantaila informatiko praktikara ekartzeko orduan udal langileei eta herritarrei (on-line tramitazioak) euskarazko aukera erraztu asmoz. Udala eta herritarren arteko harremanetan teknologia berrien erabilera areagotuko duen oinarria jarri zen martxan; guri dagokigu oinarri hori euskara ulergarrian eta erosoan erabiltzeko moduan prestatzea.
7.- "Gernika-Lumoko ahotsak" proiektua burutzeko Badihardugu Elkartearekin hitzarmena sinatu zen (2009-2012), 80 urtetik gorako 50 lekukoen grabazioak egin eta zintak kodifikatzeko. Honi gehitu zitzaizkion Gernikazarrak Lumoko historiari buruzkoliburua osatzeko egindako elkarrizketak eta Udal Euskaltegiko Josu Erkiagak alfabetatzerako grabatutakoak. Guztira, 77 lekuko eta 116 zinta.

2014-2017rako Plan Estrategikoa oinarri izandako ebatzi eta urrats nagusiak (elikadura)

- **Diru laguntzak emateko** udal saila desberdinetako araudiei buruz **txostenak** emateari ekin zaio.
- **Ahotsak.com plataformarako jaso ziren bideoak digitalizatzeko** lau urteko konpromisoa sinatu zen Badihardugu Elkartearekin 2015ean. Indarrean egongo da 2016tik 2020ra.
- **HITZA-rekin beste lau urterako hitzarmena sinatu zen** (2019-2023), publizitaterako eranskin berezi bat izanik.
- **Gazteek sarean erabiltzen duten informazioa eta tresnak euskaraz egon daitezen ahalegin berezia**; Gaztezuloren BEITU egitasmoarekin bat egin eta DBH 4. Mailako ikasleei aldizkari digitalaren harpidetza doan eskaini zaie urte osorako.
- **Aurrekoarekin lotuta, haurrek euskararen erabilpenean ikastetxetik kalera duten aldeari aurre egiteko** IAMETZA enpresarekin adostu esperientzia pilotu bat burutzea (teknologia berrien kontuarekin uztartuta).
- **Udal liburutegiarekin elkarlana sendotu,** kontuan izanik herritarrekin dituen loturak (bazkide kopurua, facebook-eko kide kopurua) eta, gainera, adin-multzo desberdinetako herritarrekin. Areago, konturatu gara familiartean aritzeko tailerrak antolatzerakoan arrakastatsua gertatzen dela liburutegia.

II.3.1.- Kulturgintza - Balorazioa

ADIERAZLEAK

Zenbait eragilerekin kaleratutako argitalpenak (1987-2017)

Berritzegunearekin: • Gure Ohiturak I, Neguaren bihotza, 1987 (Berritzegunea) • Gure Ohiturak II, 1988 (") • Busturialdeko jolasak, 2003 (Berritzegunea)	3
Irakaskuntza zentroekin: Idazlan koadernoak (LHkoa eta DBHkoa) urtero. Guztira 14 argitalpen (2002-2012)	14+8
Saure Editorialarekin elkarlanean argitaratutakoak: • Tolerantzia (baliabideak eta arronkak) 2002 • Aritz pilotaria (Nayarit-eko altxorra) (komikia) 2003 • Knososos-eko Ondarea (komikia) 2004 • Harri pintatzaileak (komikia) 2005 • Marraztu PIRATAREKIN (komikia) 2006	5
Labayru Institutuarekin elkarlanean argitaratutakoak: • Euskaldunak Madrilen (eleberria) (Jose Basterretxea "Oskillaso") • Kurloiak (eleberria) (Jose Basterretxea "Oskillaso")	2
BBK Fundazioarekin elkarlanean argitaratutakoak: • Urdaibai artean (literatura gida) • Urdaibai artean (paisaiaren alkimia)	2
Gernikazarra Historia Taldearekin elkarlanean: • Gernika-Lumo, kalerik-kale, 2003 (toponimia urbanoa) • Errenteria auzoko historia liburua • Unitate didaktikoak (hiribilduaren historia) 2008-2012 (zortzi unitate)	2+8

Elai Alai dantza taldearekin: • Gernika-Lumoko urtaroak eta Elai-Alai dantzari taldea	1

Euskara zerbitzuak taxutu eta argitaratutakoak:

• Agenda interkulturala (2006) • Udaleko tramiteen esku-liburua (gida) (2006) • Etorkinentzat zerbitzu-gida (2007) • Etxebizitzaren erabilera eta mantentze estilo-liburua (Alkarbide bitarteko) - 2005 • Merkataritzako unidade didaktikoa (Artez enpresa bitarteko) - 2006 • Toponimia liburua (Euskaltzaindiarekin) 2011 • Gernika-Lumo inguruko ibilbideak (BERBALAGUN-2017)	7

Dakusagunez, arlo desberdinetako materiala lantzen ahalegindu gara (literatura, etnografia, corpusari buruzkoak, gaztetxo eta gazteei begirakoak, heldueei erabilera erraztekoak,…), gizarte esparru eta adin desberdinetarako aproposak.

Lan oparoagoa urte aberatsak izan direnetan eta ezer ez zegoelako ere aitzakia. 2006tik 2012rako ibilbidea apalagoa izan zen argitalpenei dagokienean, baina emankorra izandako uztagatik (unitate didaktikoak, toponimia, idazlan koadernoak,…).

Hitzarmengintza kanpainarako moldatutako hiztegiak (hitzarmenkideentzat)

Merkataritza eta enpresa ataletarako sortutako hiztegiak (Artez enpresa): Hitzarmengintza kanpainaren magalean Abere, aholkularitza, altzariak, animaliak, argazkigintza, aroztegiak, arraindegiak, arropak, atea, aseguruak, autoeskolak, banatzaileak, belar-dendak, bidegoklubak, kirolak, liburuak, lorak, bitxiak, brikolajea, denetarikoa-orokorra, drogeria, egunkariak, ahiza, alektrizitatea, frutak, gozotegiak, harategiak, higiezinetakoa, ile-apindegiak, informatika, irudia, janariak, jatetxeak, mertzeriak, musika, ortopedia, sukaldeak, supermerkatuak, tabernak, txokoa, ume-dendak, zapata-dendak)	44
Hitzarmengintza kanpainaren barruan **kirol mundurako prestaturiko hiztegiak (Artez enpresa)**	8

Udal liburutegiaren euskarazko fondoa (bilakaera 2004-2022)

	2004 urtea		2008 urtea		2011 urtea		2016 urtea		2019		2022	
	Guzt	**Eusk+eleb.**	**Guzt.**	**Eusk+eleb**	**Guzt**	**Eusk+eleb**	**Guzt**	**Eusk+eleb**	**Guzt**	**Eusk+eleb.**	**Guzt**	**Eusk+eleb.**
Bildumaren ale kopurua	20.513	5.228 %25,48	30.172	7.906 **%26,20**	35.585	9.194 %25,83	31.027	10.265 **%33,08**	29.280	8.528 %29,12	32.306	9.479 **%29,34**
Inprimaturiko dokumentuen ale kopurua	20.217	5.178 %25,62	28.119	7.645 %27,18	31.478	8.572 %27,23	25.896	9.526 %36,78	23.803	7.687 %32,29	26.662	8618 32,32
DVD euskarrikoak	246	43 %17,48	1.834	196 %10,68	3.466	389 %11,22	4.313	424 %9,83	4515	538 %11,91	4627	546 11,80
CD euskarrikoak	44	5 %11,36	169	36 %21,30	575	262 %45,56	818	231 %28,23	889	248 %27,89	939	257 %27,37
Eskuraketak (*)	------	-----	-----	-----	2.058	553 **%26,87**	1.555	228 **%14,66**	912	391 %42,87	1415	462 **%32,65**
Mailegatutako liburuak			-----		10.473	2.534 **%24,19**	13.871	3.642 **%26,25**	15404	4966 %32,23	17489	5440 **%31,10**
Beste maileguak (DVD, CD,…)					10.886	1.849 %16,98	9.339	753 %8,06	5562	970 %14,44	1939	327 %16,86

Iturria: Udal liburutegia

(*) "Eskuraketak" atalean gertatu den jaitsieraren arrazoia: orain arte Eusko Jaurlaritzak programa bat zeukan argitaletxe guztietatik argitalpen bakoitzeko kopuru bat jaso eta udal liburutegietara bideratzeko. Programa hori desagertu eta igarri egin da (euskarazko "eskuraketa" kopurua erdira jaitsi da)

Beste adierazle batzuk	2005 urtea	2007 urtea	2009 urtea	2011 urtea	2016 urtea	2019	2022
Kultur ikuskizunak guztira / ikusleak guztira	39 / 7875	53 / 8689	---	75 / 14.820	61/8.139	54/6.376	46/5.023
Ikuskizunak: euskarazkoak / euskarazkoetako ikusleak	16/3490 %41 / %44,32	26 / 2671 %50 / % 30,74	---	35 / 8.476 %47 / %57,19	27/3.361 %44 / %41,29	32/5.000 %59 / %78	38/4.093 %82 / %81
Jaietako ekitaldiak: guztira / euskaraz (estimazioa)	-	120 / 110 %91	100 / 90 %90	-	-		

Badihardugu Elkartearekin sinaturiko hitzarmenaren faseak ("ahotsak.eus")

Gernika-Lumoko 80 urtetik gorako lekukoen testigantzak jaso (77 hizlari, 116 zinta, 1.095 pasarte) ondoren, guztiak digitalitzatzeko 2016an hitzarmena sinatu zuen Udalak Badihardugu elkartearekin eta 2020an bukatu dira lan guztiak:

Bete diren faseak	Urtea	Diru kop.
1).- Gernika-Lumoko Ahotsak proiektuko zintak kodifikatu, landuriko zintarik ez duten hiztun bakoitzaren zinta bat gutxienez (15 ordu bideo)	2016	2.400
2).- Dagoeneko kodifikatuta dauden zintetatik falta diren 162 pasarteak editatu eta sareratzea	2017	1.944
3).- Gernika-Lumoko Ahotsak proiektuko zintetatik ateratako pasarteak editatu eta sareratzea (225 pasarte x 12€)	2018	2.700
4).- Lumoko Historia proiektuko zintak eta gainontzeko proiektuetakoak kodifikatu (15 ordu audio)	2019	2.400
5).- Lumoko Historia proiektuko zintetatik eta gainontzeko proiektuetakoetatik ateratako 225 pasarteak editatu eta sareratu (225 pasarte x 12€)	2020	2.700
GUZTIRA		**12.144**

Pozteko ondorioak (kulturgintza):

1.- Udalerri mailan Kultura Plan baten falta sumatzen zen eta azken legealdian eutsi zaio lan horri. Gizarte eragileekin moldatu da eta bi ardatz hartu ditu: memoria historikoa eta musika, bietan euskararen tratamendu berezia kontuan hartuta.

2.- Aurrekontuari dagokionean, Kulturgintza esparrurako ez da kopuru handirik aurreikusi behar izan (8. orrialdea), kulturgintzako eragileen (Kultur Etxea Fundazioa eta elkarteak) hizkuntza irizpideekiko dinamika normaldutzat jo dezakegulako neurri handi batean eta kudeaketarako laguntza eskaintzea izan delako Euskara Zerbitzuaren eginkizun nagusia. Burututako ekintzak Kultura Arloko aurrekontuaren bizkarrekoak izan dira, corpusarekin zerikusia duten ekintzen kasua salbu.

3.- "Hitzargune" kanpainan daude kultur elkarte gehienak (40tik 29) eta euren artean garrantzitsuenak. Atal honetan, gure alde daukagu kultur elkarteek ez izatea goragoko erakundeekiko menpekotasunik, kirol elkarteek dituzten Federazioen antzeko oztoporik eza.

4.- Kultur elkarteetako kideen euskararen erabilera altua da (64. Orrialdea: 2022an %88,24), ezagutza ere altua delako (%91 ingurukoa). Horrek adierazten digu kultur elkarteetan (gazte elkarteak barru) biltzen den biztanleria euskalduna dela ia guztia: gazteak hein handi batean eta inplikazioa duten helduak. Kaleko erabilerarekin alderatuta (%49,6) alde makala. Giza-talde batean dagoen euskaldunen dentsitatearen eragina dogu honakoa; zenbat eta euskaldun dentsita handiagoa, hainbat eta aukera gehiago euskaraz aritzeko.

4.- Kultur Etxeko bilgune teknikoa sortu da. Horrek, erraztu egiten digu Kultur Etxeko zerbitzu desberdinen jarduna Euskararen Plan Estrategikoarekiko uztartzea (Musika Eskola, liburutegia, programazio lana, Gaztelekua, Informazio Bulegoa).

6.- Euskarazko ikuskizunen portzentajeak gora egin du nabarmen (2005ean %41; 2011n %47; 2019an %59; 2022an %81), eta ikusle kopuruak honakoak: euskarazko ikuskizunetan 4.093 (%81) eta gainerakoetan 930 (%19).

8.- Argitalpenetan landutako gaiak (gizarte eragileekin elkarlanean) baliagarri ditugu beste esparru batzuetan ekiteko (irakaskuntza, alfabetatzea, familia, aisia eta gaztedia, kulturgintza,…). Azkena izan zen Toponimia liburua, urte askotako lanaren fruitu. Argitalpen horiek eskuragarri daude: http://www.gernika-lumo-euskaraz.com/euskara/argitalpenak.

9.- 2008-2012 epean sinatu zen hitzarmena **"Badihardugu elkartearekin"** lekukoen ahozko testigantzak jasotzeko eta **2016-2020 eperako beste hitzarmen bat horiek guztiak digitalizatzeko.** Altxor bat dago hor irakaskuntzarako eta ikerketa lanetarako.

10.- Udal liburutegian euskarazko + elebietako funtsen kopuruak gora egin du eta euskarazkoen portzentajeak ere igo egin dute atal gehienetan (eskuraketak, maileguak,…). Ez da erraza hori gertatzea hizkuntza nagusien merkatuak agintzen duen esparru horretan…

11.- (54. orrialdeko taula) **Kultur Etxearen hizkuntza egoera poztekoa da** beste erakunde/arlo batzuekin alderatuz gero. Kirol Erakundearena ere parean (kontraesanen bat salbuetsita…).

Kezkatzeko ondorioak (kulturgintza):

1.- Udal liburutegian bilduma osoarekiko euskarazko fondoaren portzentajea mantendu egin da urteetan zehar (%26 eta %29aren artean, gora beherekin), nahiz eta kopurutan bilduma osoak gora joan duen heinean ere euskarazkoak gora egin. Komenigarria litzateke portzentaje hori areagotzea, baina merkatuan dagoen guztia jasota ere ez da erraza lortzea.

2.- Liburugintzari eutsi eta hainbat argitalpen egokitu ostean, material horrekin helduen munduan zabalkundea egin eta etekina ateratzea zailagoa gertatzen da. Kasu honetan, bide desberdinak jorratu izan ditugu (eskolak eta institutuak, Berbalagunkideak, Euskarazoka -hileroko lehenengo zapatuetako azoka berezietan salgai prezio sinbolikoan edo opari-, web gunea,…) baina ez daukagu indize zehatzik aztertzeko.

3.- Hutsunea dago kulturgintzatik egiten den tailer berezien eskaintzei buruzko datuetan (arte eskola, zeramika, bitxigintza, komikia,… tailerrak) eta dinamikan.

4.- Corpusetik abiatu eta ahozko akatsen datu-bilketa eginda, zuzenketarako moduak asmatu beharra dago. Kasu honetan, neurri batean alfabetatzearekin egiten dugu topo, baina helburua kaleko erabilera zuzenean eragitea litzateke.

5.- (54. orrildeko taula) **Musika Eskolaren hizkuntza egoeran argi-ilunak agertzen dira** eta eurekin sakondu beharko zergaitietan eta adostu beharko neurri zuzentzaileak.

II.3.2.- Hedabideak - Balorazioa

Oiz Mendi Telebista	2003 urtea	2005 urtea	2007 urtea	2008 urtea	2012 urtea	2016 urtea	2020	2022
Hedabidearen aurrekontuaren bilakaera	24.000	185.000	258.000	418.000	358.200	212.454	230.000	232.000
Langile kopuruaren bilakaera	5 (irratia barru)	5 (irratia barru)	6 (irratia barru)	6 (irratia barru)	2 irratian 6 telebistan	5(irratia barne)	5(irratia barne)	5(irratia barne)
Ikusleak (neurketa bakarra eskualde bietan: Busturialdea eta Lea-Artibai – Ondarru ez-)	---	---	8.200 (etxe/familia)	---	14.100 (etxe-familia) Eskualde biak + Euskaltel	30.000 Ikus-entzule potentzial eskualde bietan	35.000 Ikus-entzule potentzial eskualde bietan	35.000 Ikus-entzule potentzial eskualde bietan

Iturria: Oiz-mendi

Busturialdeko Hitza egunkaria	2006 urtea	2012 urtea	2016 urtea	2020	2022
Tirada guztira (eskualde bietan)				**5.500**	**5.000**
Gernika-Lumon banatzen den kopurua				**521**	**430**
Harpidedun guztiak Busturialdean	2101	1.835	1.049	1.031	1.016
Harpidedunak guztira: Gernika-Lumon / Bermeon	---	632 / 955	467/378	480/412	376/306
Gastuen aurrekontua	463.380	621.445	623.315	748.579	704.433
Publizitateko diru sarrerak	86.679	159.690	143.388	159.641	127.355
Irakurle kopurua eskualdean (Lea/Busturi) (estimatua)	---		25.000 Bizkaia osoan	34.000	35.000

Iturria: Busturialdeko Hitza / (*) Kontuan hartu behar da hainbat Udalek harpidetzak erosi zituztela, herritarren artean banatzeko.

Bagabiz aldizkaria, hilabetekaria	2002 urtea	2004 urtea	2007 urtea	2017 urtea	2023 urtea
Tirada Gernika-Lumon (banaketa buzoietan)	5.000	5.000	5.000	5.000	5.000
Publizitatea (iragarki kopurua)	18	44	62	……	……

Iturria: Bagabiz aldizkaria

UEMA-k egindako neurketa 2022an (ikus-entzunezkoen kontsumoa/10-18 urte bitarteko gazteak)

Ikus-entzunezkoen kontsumoa udalerri euskaldunetan

10-18 urte bitarteko gazteak

Telebista

Zeintzuk dira gazteek gehien ikusten dituzten telebista kateak?

etb	ETB1 *	%35,6	neox	NEOX	%16,2
5	Telecinco	%21,6		Antena 3	%13,7
clan	Clan	%21,0	cuatro	Cuatro	%13,4
	FDF	%20,0	DMAX	Dmax	%13,2
etb	ETB2	%17,0	etb	ETB3 *	%12,3

* Euskaraz

Zeintzuk dira gazteek gehien ikusten dituzten streaming plataformak?

NETFLIX	Netflix	%62	movistar+	Movistar+	%20
prime video	Amazon Prime	%33	etb	ETB Nahieran*	%10

*Euskaraz eta gaztelaniaz

Sare Sozialak

Euskarazko ikus-entzunezko edukien kontsumoa sare sozialetan

Youtubeko edukien hizkuntza (%)



Instagramera edukiak igotzeko hizkuntza (%)



TikToken ikusitako edukien hizkuntza (%)



Twitchen jarraitutako kontuen hizkuntza (%)



- Euskara
- Gaztelania
- Beste hizkuntzak
- Youtube ez / TikTok ez / Instagramen Edukirik ez / Twitchen ez

Musika

Zein hizkuntzatan entzuten dute musika euskal gazteek?



Bideojokoak

Zein hizkuntzatan jolasten dira bideojokoetan euskal gazteak?



Iturria: Ikus-entzunezkoen kontsumoa udalerri euskaldunetan. UEMA.

Pozteko ondorioak (hedabideak):

1.- Hedabideen esparruan Plan Estrategikoaren betetze-maila nahiko altua da, nahiz eta komunean burutzeko geneukan ekintzaren bat ez den bideragarri izan (publizitatea, hizkuntza irizpideak,…aztertzeko foro bat sortu udal eta eskualde mailako hedabideen artean). Komunikabide bakoitzak (Oizmendi. Bagabiz, Hitza) hartu ditu estrategiak eskualde mailako terminologia eta euskalkira hurbilketa egiteko eta irakurleak/ikusleak erakartzeko. Horretarako bidelagun da Euskara Zerbitzua.

2.- Esparru honetan 2008tik hona erabilitako aurrekontua mantentzeko ahalegin berezia egin da (txosten honetako 8. Orrialdea), lehentasunezko eta estrategikotzat jo delako; 2003an 12.621 €ko aurrekontua (guztiaren %6,87), 2008an 107.000 € (guztiaren %16,34), 2012an 95.400 € (guztiraren %15,78), 2016an (%13,52) eta 2022an 70.000 € inguru (estimazioa %15); 2016tik aurrera, "zehar lerrokoen atalera" pasatu da hedabideetakoa, helburu estrategiko guztiekin lotura duelako.

3.- Hedabideen esparruan eskaintza zabala euskaraz izatea lortu egin da neurri handi batean (telebista, egunkaria, hilabetekaria). 1990-1999 urte bitartean Udalaren magalean euskarazko Deiadar/Eutsi astekaria abian egon zenetik, asko garatu da esparru hau gizarte eragileen ekimenari eskerrak (Gernika irratia-Oiz-mendi telebista, Lea-Artibai Hedabideak S.L., Bagabiz aldizkaria), herri erakundeen diru-laguntzekin.

4.- Abian dauden egitasmoak enpresa ekimenak dira. Horixe azpimarratzen genuen 2016an ere eta, horrek, nolabaiteko balio erantsia ematen die proiektuei, ekonomikoki bideragarriak izan daitezen ahaleginari eusten zaiolako; errealitate artifizialari uko eginda, komunikabideekiko herriak duen atxikimenduaren arabera neurriratzea dakar jokabide horrek.

5.- Etxe guztietan dago euskarazko hedabideekin lotura izan eta hurbileko albisteak euskaraz dastatzeko aukera. Bertoko albisteak bitarteko, modu erakargarrian euskararen erabilera areagotzeko baldintzak sendotu egin dira.

6.- Udalerriko hedabideen potentzialitatea eta eragina handia da, kontuan hartuta euren hedapena. Aurreko hamabost urteetako neurketen arabera, eskualdean gehien irakurtzen zen egunkaria zen Hitza (10.000 irakurle). Harpidetza kopurua zerbait jaitsi da azken urteetan, baina idatzizko hedabideen joera orokorra ere bada. Oiz-mendi Telbistari dagokionez, 35.000 ikusle potentzial ditu eskualde bietan (Busturialdea eta Lea-Artibai) eta Hitzaren irakurlekopuruaren estimazioa ere 35.000 ingurukoa da eskualde bietan.

7.- **10-18 urte bitarteko gazteek kontsumitzen dituzten ikus-entzunezkoetan argi-ilunak daude** (UEMA-k 2022an egindako neurketa herri euskaldunetan); dagoen eskaintza erraldoiaren aurrean, poztekoak dira euskarazko edukien kontsumo datu batzuk: ETB1 %35,6 (Telecinco %21,6)/ Instagram %20,8 euskaraz (gaztelaniaz %18,7) / Musika %25,8 euskaraz).

Kezkatzeko ondorioak (hedabideak):

1.- Ez da oraindik euskarazko hedabideen arteko elkarlanerako fororik sortu, nahiz eta euren arteko lehiarik izan ez (publizitatea, hizkuntzaren tratamendurako irizpideak,…). Interesgarria izango litzateke horretarako bilgune bat sortzea.

2.- Udalerriko hedabideek erabiltzen dituzten hizkuntza ereduak ez dira berdinak eta hiztunekiko komenigarria litzateke horretan nolabait bateratuta jokatzea, hizkuntza eredu antzekoak eskainiz hedabide desberdinetan eta hiztunen begietarako horrenbeste nahaste ez sortzea. Azken urteetan eman dira pausu batzuk bide horretan.

3.- Euskarazko hedabideak administrazioaren diru-laguntzen/iturrien pentsura daude gaur egun, enpresa egitura duten arren. Horrek sor dezakeen dinamika kaltegarria da bihar-etzirako, kalitate eta hobekuntza prozesuaren beharrizanik ez eta bezeroen gogoak kontuan hartu barik jokatzea ekar dezakeelako.

4.- Hitza egunkariaren kasuan, aztertzekoa da harpidedun kopuruak behera egitea, krisiaren eraginez akaso, nahiz eta Gernika-Lumoko harpidedunak fideltasun handikoak izan (harpidedunen kopurua eta ordaintzen dutenena konparatu).

5.- Esparru honetan ekiteko irizpideak finkatzearren, diagnostiko sakona egin beharra dago. Hedabideen arrakasta "erreala" neurtu eta euskal hiztunen azebetetze maila ezagutu, aurrera begirako hobekuntzak moldatzeko.

6.- Aipatu diagnostikoa oinarri, euskarazko hedabideen bideragarritasun finantzarioa ziurtatzeko bideak jorratu behar dira. Baina, ez dugu ahaztu behar euskararen normalizaziorako lehentasunezkoa dela euskarazko hedabide osasuntsuak eta sendoak izatea. Beraz, Administrazioak eskaini behar duen diru-laguntza ezin izango dugu inoiz baztertu, batez ere krisia bizi dugun sasoi honetan. Aipagarria Bagabiz aldizkariaren kasua, aurreko legegintzaldian udalaren "babesa" galdu zuena eta gaur egun bizirik dirauena.

7.- **10-18 urte bitarteko gazteek kontsumitzen dituzten ikus-entzunezkoetan alde ilunak**; youtubeko edukiak euskaraz %9,4 / tik-tok %4,2 / Bideo-jokoak %3,5.

II.3.3.- Teknologia berriak – Balorazioa:

Gernikaldeko 12 urteko ikasleei egindako neurketa (iturria: Gernika-Lumoko Berritzegunea – 2010)

(ULIBARRI programako GELARGAZKIA / gehienezko puntuaketa 5)

Gaztelaniaz, nagusitasun argiz		Aita-amak, beren artean gaztelaniaz nagusitasun argiz	
Gaztelaniaz, nagusitasun ahulez		Aita-amak, beren artean gaztelaniaz nagusitasun ahulez	
Euskaraz, nagusitasun ahulez		Aita-amak, beren artean euskaraz nagusitasun ahulez	
Euskaraz, nagusitasun argiz		Aita-amak, beren artean euskaraz nagusitasun argiz	

ZENBAKIAK

1: Beti erdaraz

2: Erdaraz gehiago

3: Bietara berdin

Batazbestekoa:

		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
Berba egin	Egin	3.28	3.72		3.71	3.72	3.15	4.19	4.38	4.09	4.39	3.55	2.49			3.70	4.04
	jaso	3.28	3.72	2.52	3.67	3.60	2.95	4.20	4.50	4.07	4.53	3.55	2.49	3.03	2.49	3.30	4.04
Irakurri	Egin												2.49				
	Jaso												2.49		2.68		4.04
Idatzi	Egin												2.49				
	Jaso												2.49				

kodeak

1. Familia
1.1 Gurasoekin
1.2 Anai-Arrebekin
1.3 Gurasoak beraien artean
2. Auzoa
2.1 Kaleko lagunekin
2.2 Auzoko ezagunekin
2.3 Auzoko ezezagunekin
3. Eskola
3.1 Gelako lagunekin
3.2 Irakasleekin gelan
3.3 Lagunekin jolastorduan
3.4 Irakasleekin gelatik kanpo
4. Komunikazioa
4.1 Telefonoz
4.2 Interneten
4.3 Irratia-musika entzun
4.4 TB, Bideoa, Zinea, Prentsa
5. Kirola
5.1 Kirolean
6. Eliza
6.1 Elizan

Parte hartu duten ikastetxeak:

- Publikoak LH: 2 (lagina: LH-ko 6. mailako talde bana)
- Publikoak BH: 2 (lagina: DBH-ko 1. mailako talde bana)
- Itunpekoak: 3 (lagina: DBH-ko 1. mailako talde bana)

Eremu erdaldunak:

1. **Internet**: **2.49**
2. **TB, Bideoa, Zinea, prentsa**: **2.49**
3. **Gurasoak beraien artean: 2.52 (%50,4).** Gernikaldeko betiko arazoa: umeei euskaraz eta nagusien artean, erdaraz.
4. **Auzoko ezezagunekin: 2.95 (jaso). 3.15 (berba egin)**. Zergatik ezezagunei erdaraz zuzentzeko joera?

Eremu euskaldunenak:

8. **Eskola**: **4** eta **5** tartean, hau da, eremu euskaldunena
9. **Eliza: 4**tik gora
10. **Anai-arrebekin**: **3,72 (%74)**. Guraso bat erdalduna den kasuetan ere, euren artean euskaraz aritzen direla ematen du.
11. **Kaleko lagunekin 3.71 /3.67,** baina gelakoekin: **4.9 /4.20**: kaleko eta gelakoak lagun berberak izanik, eragina al du eskolan egoteak?
12. **Auzoko ezagunekin**: **3.72** (egin) **3.60** (jaso). Aldea dago "egin" eta "jaso"-ren artean, handirik ez baina.
13. **Gurasoekin**: **3.28** (egin eta jaso -%65,6-). Anai-arrebekin egiten dutenarekin alderatuta (3,72) eta guraso erdaldunen kopurua kontuan hartuta, ondorioa: guraso bat erdalduna den kasuetatik ere %8,4 batek euskaraz egiten du anai-arrebekin.

Adin tarte honetako gurasoen datuak **(BRANKA):**

- Guraso biak euskaldunak: % 57
- Guraso biak erdaldunak: % 16
- Guraso bat euskalduna: % 27

14. **Kirolean (eskolan): 3.70 /3. 30** eman du bataz-bestekoa. Kasu honetan, komenigarria litzateke bereiztea eskolan egiten dena, nahiz eta ikastordutik kanpo izan. Kirol elkarte batzuk aztertzeko aukera emango luke, Gernikaldean behintzat.

BESTE ADIERAZLE BATZUK

www.gernika-lumo-euskaraz.eus BISITAK	2011 osoa	2012 Sei hilabete	2014 osoa	2016 osoa	2019 osoa	2020 osoa	2021osoa	2022 osoa
Web orriko erabiltzaileak		**1.573**	**2.955**	**2.552**	**3494**	**1966**	**1981**	**741**
Web orrian izan diren saioak		**1.897**	**3.338**	**3.003**	**3.803**	**2.092**	**2.403**	**888**
Web orrietara bisitak GUZTIRA	9.371	4.853 gora	6.711 behera	6.067		3.332	5.402	2.990
Web orrietara bisitak: argitalpenen atalera	536	257 berdintsu	259 behera	579 gora	---	---	---	---
Web orrietara bisitak: Euskara Batz/Eusk Zerb. atalera	528	282 gora	159 behera	447 gora	---	---	---	---
Web orrietara bisitak: jorratokiak	389	251 gora	114 behera	568 gora	---	---	---	---
Web orrietara bisitak: baliabideen atalera	176	127 gora	98 behera	93 mantendu	---	---	---	---

FACEBOOKen erabilera (udala eta arlo/erakunde batzuk)

ERAKUNDEA	Jarraitzaile kop			Euskarazko post-ak			Eleberazko post-ak	Gaztelaniazko post-ak		
	2013	2017	2022	2013	2017	2022	2022	2013	2017	2022
Udala	710	1.914	3.700	%50	%65 (eleberaz %16)	%0	%100 Ondo %81 / Txarto %19	%50	%24	-
Liburutegia	2.759	2.794	-	%100	%100		-	-	-	-
Turismo bulegoa	3.426	4.073	5.200	%66,66	%37,3	%0	%95 Ondo %90 / Txarto %5	%33,34	%62,7	%5
Hitzargune kanpaina	171 Elk/erak	219	260	%100	%100	%100	-	-	-	-
Gazteen informazio bulegoa	-	505	-	-	%100			-		-
Kultur Etxea	-	-	2.900	-	-	%100	-	-	-	-
Berdintasuna	-	-	91	-	-	-	%100 ondo	-	-	-
Lanbide Ekimenak	-	-	273	-	-	%100	-	-	-	-

INSTAGRAMen erabilera (Udala, Kultur Etxea eta Berdintasuna)

ERAKUNDEA	Jarraitzaile kop	Euskarazko post-ak	Eleberazko post-ak	Gaztelaniazko post-ak
	2022	2022	2022	2022
Udala	1.490	-	%100 Ondo %81 / Txarto %19	-
Kultur Etxea	182	%100	-	-
Berdintasuna	193	%30	%70 Ondo %60 / Txarto %10	-

Udalaren webgunea (www.gernika-lumo.eus) BISITAK (EUSKAL HERRIKOAK)	2016ko uzt/abendua	2022 (3 hilabete: urt/apir/ek)
(*) Webgunerako bisitak guztira (Euskal Herrikoak)	39.921	14.198 (3 hilabete)
Webgunerako bisitak euskaraz (sartzeko orduan)	10.056 / **%25,18**	3.130 / **%23**
Webgunerako bisitak euskaraz (irtetzeko orduan)	8.492 / **%21,27**	----
Webgunerako bisitak gaztelaniaz (sartzeko orduan)	29.865 /%74,82	10.614 / **%75**
Bisitaturiko orrialdeak guztira	150.126	----
Bisitaturiko orrialdeak euskaraz	31.324 / %20,86	----

(*) Taulan jasotako bisita kopurua (39.921) Euskal Herriko herritarrena da (egia esan, estimazio bat egin behar izan dugu datu hori ateratzeko eta %5 inguruko akats tartea izango du seguru); kontuan hartzekoa da bisitak guztira, mundu osotik, 77.491 izan direla sei hilabeteko epe horretan.

Pozteko ondorioak (teknologia berriak):

1.- Posible izan zen Euskara arloko webgune berezia martxan jartzea. Erronka zen guretzat eta, azkenean, lortu genuen. Mantendu egin da eta aberastu/gaurkotu ahal izan den neurrian.

2.- Udalaren web orri berrian sartzeko euskarazko bertsioa hobesten da eta euskararen aldeko diskriminazio positiboagaz bat egiten du.

3.- "gernika-lumo.eus" web gunera sartzen diren Euskal Herriko bisitarietatik %23a inguru euskaraz sartzen da eta datu horrek gainditu egiten du Euskal Autonomia Elkartean 2021ean izan zen kale erabileraren datua (%15,7). Ez da bolanderak botatzeko modukoa baina….

4.- Esparru honek izaera transbertsala dauka eta beste esparru batzuetan ekiteko bidea eman digu. "Facebook"-en dinamika euskara hutsezkoa da hurrengoetan: hitzargune kanpainan (Elkarteak, enpresak eta merkataritza), Kultur Etxean; Lanbide Ekimenak zentroan

5.- Teknologia berriekin eskaintza berezia egitea lortu dugu Hitzargune kanpainan: hitzarmenkide direnei hiztegi elektronikoak, euskarazko aplikazioak, agiriak.net -idatzi ereduak eskuragarri-, ikasare.net -euskara ikasteko on line sistema-,… eta facebook-a euskara hutsean merkatariei, enpreseo eta elkarteei.

6.- Ahalegin berezia egin da Aldundiak martxan jarriko duen fakturaziorako "tiketbai" sistemako sofwarra euskaraz izateko eta Hitzargune kanpainatik lortu dugu sektoreko enpresa batekin euskarazko sofwarra egokitzea.

7.- KZgunearekin harremanak estutu ditugu eta lorpenak izan dira; aurreko urteetako joerari buelta eman zaio eta euskarazko ikastaroen eskaintza aqsko areagotu da.

Kezkatzeko ondorioak (teknologia berriak)

1.- "gernika-lumo-euskaraz.eus" webgunea 2011n martxan jarri genuenetik, bisitak asko gutxitu dira. Pandemiak horretan eraginik izan duen ezin dugu ziurtatu, baina bada datu kezkagarria.

2.- Ikasleen artean gunerik erdaldunenak (5etik 2,49 puntu): Internet, telebista, bideoa, zinea eta prentsa. Eskoletan 2010ean egindako "gelargazkia" datu-bilketan islatzen diren datuak dira. Ez daukagu gaurkotuagorik.

3.- Aurreko urteetan esan bezala, zer esan gutxi daukagu udal mailatik esparru honetan eragiteko. Goragoko erakundeak (goi erakunde publikoen politikak, enpresa handiak, multinazionalak,…) sartzen dira jokoan eta euren jokabideen menpe gaude, instituzioa publiko nagusiek lege bideak jorratu bitartean.

4.- Elkarte, erakunde, enpresa eta merkataritza arloan teknologia berriak zein neurritan eta zelakoak erabiltzen diren jakiteko diagnostiko zehatza egin beharra dago udalerrian. Hortik abiatu beharko litzateke hurrengo Plan Estrategikorako proposamenak egiteko.

5.- Gure kezka, goragoko erakundeen kezka ere bada, iraultza teknologikoak hizkuntza erabileran gero eta zer esan gehiago izango duelako. Euskararen Aholku Batzordeko Batzorde teknologikoa (HPSren koordinaziopean) egoeraren diagnostikoa egiten aritu zen duela urte batzuk eta hurrengo urteotan euskarak sarean izan behar duen presentziarako ekintzak, epeak eta parte-hartzaileak zehaztu zituen; guretzat orientabidea. Lorpenak hor daude (".eus", aplikazioak euskaraz,…), baina bidea luzea izanda ere, etengabe ateratzen dira gauza berriak. Soluziorik onena: euskarari lehentasuna ematen dioten jatorrizko baliabide teknologiko berriak sortzea.

6.- Udaleko atal batzuetan facebook-erako elebitasunaren aldeko apostua (%100) egin da (Instagramen berdin): Udaleko komunikazio arloa, Turismo Bulegoa eta Berdintasunerako zerbitzua. Euskararen aldeko diskriminazio positiboa falta da, mezu hartzailearen perfila eta mezua doakion sektoreko hizkuntza egoera kontuan hartuta (esaterako, hezkuntza, gaztedia,..).

II.4.- Zehar lerrokoak lantzeko atala: Sentsibilizazioa eta motibazioa

2014-2017 eperako ESEP (Plan Estrategiko: **E**uskara **S**ustatzeko **E**kintza **P**lana) taxutzeko jarraibideak planteatu zirenean, hiru helburu estragikoez gain (1.a Euskararen transmisioa / 2.a Euskararen erabilera / 3.a Euskara elikatzea), laugarren atal bat sortu zen helburu estrategiko guztiekin lotuta zeuden hainbat eta hainbat ekintza kokatzeko: ZEHAR LERROKOAK / SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA.

Gure kasuan, helburu estrategiko bakoitzean egindako hausnarketan aintzat hartu ditugu atal honetan kokaturiko ekintzak, baina, besterik ez bada, derrigorrezkoa da euren aipamena egitea, ekintzarik garrantzitsuen eta potenteenak direlako.

Koadroan argitzen da ekintza bakoitzarekin landu nahi izan diren helburu estrategikoak ("(*)" ikurra dutenak ezin izan dira bete):

EKINTZAK	**1.- H. E. TRANSMISIOA**	**2.- H. E. ERABILERA**	**3.- H. E. ELIKATZEA**
14.1. Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotu (Toki erakundeak)			
- (*) Alderdi politikoei begirako lanketa (Plan Estrategikoa eta Administrazioko Erabilera Planaren informazioa; helburua, jakitun egotea eta programetan proposamenak txertatzea)	X	X	
- (*) Hauteskundeetan hautatutako kargu politikoei begirako lanketa (Plan Estrategikoa eta Administrazioko Erabilera Planaren informazioa; helburua, euren lanerako izango dituzten tresnak ezagutzea)	X	X	
- Politikarien artean euskaraldiko hamaikakoak sortu	X	X	X
- Tokian tokiko hizkera eta toponimia ondarea jaso, argitaratu eta hedatu (ahozkoa zein idatzizkoa): toponimia, inguruko azpieuskalkiaren ezaugarriak, bilakaera, haur eta gazteen ezagutza eta erabilerari buruzko azterlana... Udal toponimiaren zabalkundea	X	X	X
- Euskararen aldeko eguna, asteburua, astea. (ABENDUAK3 / egitaraua)	X	X	
14.2. Familia transmisioa (Toki erakundeak)			
- Guraso eta aitona-amonenganako sentsibilizazio kanpaina burutu, ikastalde eta ikastaro bereziak sortzeko… GURASO TALDEAK ERATZEKO KANPAINA	X	X	
14.3. Irakaskuntza (Toki erakundeak)			
- Informazioa eman herritarrei euskarazko helduen prestakuntza zerbitzuez: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian zintzilikatu...	X	X	
14.4. Euskalduntze-alfabetatzea (Toki erakundeak)			
- Euskara ikasteko prozesuaren gaineko informazio orokorra modu erakargarrian eman	X	X	
- Euskara ikasteko diru laguntzak eskaini baldintza batzuk betetzearen truke (deialdia)	X	X	
14.5. Administrazioa (Toki erakundeak)			
- Herritarrek udalarekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko sentsibilizazio kanpaina ("Zuk zergatik ez?" kanpaina); HITZARGUNE bitartez ere bai; BIKEE kirol esparruari begirako kanpaina.	X	X	
- (*) Herritarrak sentsibilizatu, sare sozialen bidez presioa egin dezaten euskararen erabilera xede			

14.6. Arlo sozioekonomikoa (Toki erakundeak)			
- (*) Udala bezero den heinean protokoloa zehaztu udalak eskaera egiteko bere hornitzaile guztiei aurrekontu eta faktura guztiak euskaraz izan daitezen. (Udal adm-ko erabilera plana)	X	X	
- Saritu euskararen erabilera areagotzeko planak jarri dituzten enpresak (diru-laguntzak eta Bai Euskarari ziurtagiria)	X	X	
- Herritarrengan eta merkatari edo ostalariengan eragin, Hizkuntza Konpromisoaren Zigilua bereganatzearen onurez, herritarraren hizkuntza hautua errespetatzeko lehen hitza euskaraz izan dadin, hizkuntza paisaia zaintzeko...BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA / banaketa)	X	X	
14.7. Aisia eta kirola (Toki erakundeak)			
- Hitzarmena sinatu aisialdi taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin jorratzeko	X	X	X
- Laguntza teknikoa eskaini, erlijio saioetako materialaren itzulpenerako eta testuak kalitatezkoak direla bermatzeko.	X	X	X
- Saritu euskararen erabilera kontuan hartu eta sustatzen duten aisialdi elkarteak (kultura eta kirola / Bai Euskarari ziurtagiria)	X	X	
14.8. Liburugintza (Toki erakundeak)			
- **(*)** Astebeteko literatur jardunaldiak antolatu (liburutegia, Kultur Etxea,….)	X	X	X
- Modan dauden idazleen hitzaldiak antolatu: idazteko teknikak, ohiturak, liburuen komentarioak	X	X	X
- Euskarazko komunikabideen harpidetzak oparitu (Hitza, Gaztezulo, Hazi/Hezi) eta zentro publikoetan irakurgai utzi euskarazko aldizkariak	X	X	X
- **(*)** Liburuaren eguna ospatu. Udal liburutegiak eta Euskara Zerbitzuak elkarlanean jorratzen zituztenak berreskuratu	X	X	X
14.9. Kulturgintza (Toki erakundeak)			
- Herriko kultur elkarteekin hitzarmenak sinatu, haietan euskara erabilera sustatzeko	X	X	
- **(*)** Bertako azpieuskalki, toponimia eta ohiturei lotuta eskualdeko beste udalerriekin elkarlanean jolas eta material didaktikoa sortzeko aukerak aztertu. Unitate didaktikoak/Toponimia liburua	X	X	X
- **(*)** Etorri berriei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak, euskarazko kultur jarduerak kontsumitzera animatzeko	X	X	X
14.10. Hedabideak eta publizitatea (Toki erakundeak)			
- Komunikabideak euskarazko kultura, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu	X	X	X
- Udalerri mailako irrati-telebista zerbitzuari lagundu, euskarazko hedapena egitea helburu	X	X	X
- Busturialdea eta Lea-Artibaiko HITZA egunkariari diru baliabideak bideratu, urteanitzeko hitzarmenaren bidez	X	X	X
14.11. Teknologia berriak (Toki erakundeak)			
- Herritarrengan eragin, batez ere gazteengan, euskaraz jo dezaten sarera informazio bila (GUROT lehiaketa)	X	X	X
15.1. Euskararen irudi positiboa indartzea (Toki erakundeak)			
- 2021ean erabilararen kale neurketa berezia egin Soziolinguistika Klusterraren eskutik	X	X	
- Jaurlaritzaren ardurapean errolda berriztatzen denean, euskarari buruzko galderak eta datuak jasotzeko bideak jorratu.	X	X	
- 2020 eta 2022ko "Euskaraldia"-ren jarraipena izango duen ekimenarekin bat egin (koordinazio guneak/Topagunea)	X	X	
15.2. Hizkuntza paisaia euskalduntzea gune euskaldunenetan, hiriburuetan eta baita gune jendetsuetan ere			
- Herriko jaietan antolatzen diren aktialdietan euskararen erabilera bermatu	X	X	X